

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### 3/2023 Foru Araua, urtarrilaren 25ekoa, Aurrekontuei buruzko Arau Orokorra

Arabako Batzar Nagusiek, 2023ko urtarrilaren 25ean egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

3/2023 Foru Araua, urtarrilaren 25ekoa, Aurrekontuei buruzko Arau Orokorra.

#### ZIOEN ADIERAZPENA

3/1979 Lege Organikoak, abenduaren 18koak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzkoak, 37.3 artikuluan adierazten du lurralde historikoetako foru organoek eskumen eskusiboak izango dituztela beren lurraldeetan, beren erakundeen antolaketa, araubide eta funtzionamenduari dagokienez eta beren aurrekontuak egin eta onartzeari dagokienez.

Bestalde, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a) 4 eta 7.a) 6 artikuluek xedatzen dutenez, foru organo horiek eskumen eskusiboa dute, eta bakoitzaren araubide juridiko pribatiboaren arabera gauzatuko dute, beren aurrekontuak eta kontuak egin eta onartzeari dagokienez, bai eta lege bidez esleitutako kreditu eta finantza eragiketei dagokienez ere. Eta Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 48. artikulua xedatzen duenez, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko finantza harremanak, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek beren eskumenak garatzeko eta betearazteko duten zerga eta finantza autonomiaren printzipioaren arabera arautuko dira.

Era berean, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 8.1.a) artikulua xedatzen duenez, lurralde historikoen eskumen eskusibokoak diren gaietan, lurralde historikoei dagokie arautzeko ahalmena, eta foru organoek emandako arauak beste edozeinen aurretik aplikatuko dira.

Horregatik guztiatik, Arabako Lurralde Historikoak foru sektore publikoaren ekonomia, finantza, aurrekontu, kontabilitate, kontu-hartzailatza eta kontrol araubidea arautzeko araugintza gaitasuna du, eta Arabako Batzar Nagusiei dagokie araugintza ahalmena erabiltzea, Arabako Lurralde Historikoko Erakunde Antolakundeari buruzko 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauaren 4.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hori dela eta, 53/1992 Foru Araua onartu zen, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzkoa. Harrezkero 30 urte igaro dira, eta gure foru administrazioak finantza eta aurrekontu arloan dituen premiek aldaketa nabarmena izan dute, foru arau berri batek eskatzen duena. Aldi horretan, aurrekontuak betearazteko foru arauak izan dira, askotan, aplikatu beharreko araudia foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen aurrekontu, antolamendu eta finantza errealitateak planteatzen zituen eskakizunetara egokitzeko erabili den lege euskarria.

Ekonomia, finantza eta aurrekontu araubideari buruzko foru araua erreferentziazko dokumentu juridikoa da foru sektore publikoaren ekonomia, finantza eta aurrekontu jardueraren erregulazioan. Foru arau honek aurrekoan araututako edukia eguneratzen du, urte hauetako praktikak beharrezko frogatu dituen aldaketak sartuz eta testua berrituz, hala eskatzen duten gaietan, foru sektore publikoari eragiten dioten finantza, aurrekontu eta antolaketa alorretan izandako aldaketetara egokitzeko. Bestalde, ikuspegi formaletik, ulergarritasunaren aldeko ahalegina egin da, eta testua era argiago eta arrazionalagoan egituratu da, manuak errazago aurkitzeko.

Atariko tituluak foru arauaren eremu objektiboa definitzen du, Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren aurrekontu, ekonomia, finantza, kontabilitate, kontu-hartzailletza eta kontrol araubideak mugatuta.

Era berean, bere eremu subjektiboa mugatzen du, Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa, hura osatzen duten erakundeak zerrendatuz eta haien ezaugarriak zehaztuz. Era berean, honako hauek bereizten ditu: Arabako Foru Aldundia, baldintza jakin batzuk betetzen dituzten foru erakunde autonomoak eta foru partzuergoak parte den foru sektore publiko administratiboa, foru sektore publiko enpresariala, merkataritzako foru sozietateek, foru sektore publiko administratiboan sartuta ez dauden foru partzuergoek eta foru erakunde publiko enpresarialek osatzen dutena, eta foru sektore publiko fundazionala, foru fundazioek osatzen dutena. Azkenik, foru sektore publikoaren aurrekontu, ekonomia, finantza, kontabilitate, kontu-hartzailletza eta kontrol araubidearen jarduketa printzipioak eta arau esparrua zehazten ditu.

I. tituluaren xedea da Foru Ogasunaren araubide juridikoa arautzea.

Titulu horretako I. kapituluaren zehazten denez, Arabako Foru Ogasuna Arabako Foru Aldundiaren eta foru erakunde autonomoen titulartasuneko eskubide eta betebeharrak ekonomikoek osatzen dute. Era berean, Arabako Foru Ogasunaren eskumenak finkatzen dira.

II. kapituluak eskubide ekonomikoen araubide juridiko orokorra antolatzen du; eskubide ekonomikoak eskubide publiko eta pribatu gisa sailkatzen dira.

1. atalak Foru Ogasunaren eskubideen administrazioaren eskumen esparrua eta esparru materiala ezartzen ditu, baita zein mugari lotuta dauden eta bere eskubideak hobeto defendatzeko beharrezkoak diren ekintza judizialak egikaritzeko duen ahalmena ere.

Bestalde, zuzenbide publiko edo pribatuko harreman juridiko baten ondorioz Arabako Foru Ogasunari zor zaizkion zenbatekoak geroratzeko edo zatikatzeko aukera arautzen du, bai eta zorrak zordunaren alde aitortutako kredituekin konpentsatzekoa ere.

Orobat, Foru Ogasunaren eskubideak preskribatu behar direla ezartzen da. Foru arauetan edo baliabideak arautzen dituzten legeetan xedatutakoari kalterik egin gabe, bost urteko epea ezartzen da eskubide publikoetarako.

Gainera, mugaegunaren biharamunaz geroztik Foru Ogasunari zor zaizkion zenbatekoengatik berandutza interesen sortzapena ezartzen da, eta horien zenbatekoa zehazten da.

Azkenik, aukera ematen da Arabako Foru Aldundiko ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloetan eskumena duen sailak arautu dezan zenbateko txikiko zorren likidaziorik eza edo deuseztatzea eta kontabilitatean baja ematea.

2. atalak izaera publikoko eskubide ekonomikoak zerrendatzen ditu, horien berariazko araubide juridikoa zehazten du eta eskubide horiek eskuratzeko, sortzeko eta azkentzeko esparrua ezartzen du.

Era berean, Arabako Foru Ogasunaren izaera publikoko eskubideei buruzko eskumenak zehazten ditu, konkurtso prozesuetan parte ez hartzeko eskubidea barne.

Bestalde, izaera publikoko eskubideen kudeaketarako araubide arauemailea mugatzen du, eta, oro har, premiamendu prozedura arautzen du, ordaintzera behartuta dauden pertsonen ondasun eta eskubideen aurka egiteko.

3. atalak eskubide pribatuak arautzen ditu, haiek zerrendatuz eta haien eraginkortasun araubidea zehaztuz.

III. kapitulua Arabako Foru Ogasunaren betebeharrak buruzkoa da, eta betebeharrak horiek foru arauetatik, legeetatik, negozio juridikoetatik eta zuzenbidearen arabera haiek sortzen dituzten egintza edo egitateetatik sortzen direla ezartzen da. Betebeharrak horiek aurrekontuak gauzatzaren ondorioz galdatu ahal izango dira, foru arau honetan xedatutakoaren arabera, bai eta epai judizial irmoaren edo behar bezala baimendutako aurrekontuz kanpoko eragiketen ondorioz ere.

Era berean, Arabako Foru Aldundiak bete behar dituen Foru Ogasunaren betebeharrak instituzionalak zehazten dira.

Halaber, Foru Ogasunaren eskumen hau ezartzen da: ezein auzitegi edo administrazio agintaririk ezin du enbargo probidentziarik edo betearazpen agindurik eman zerbitzu publiko edo funtzio publiko bati atxikitako ondare ondasun eta eskubideen aurka, ez eta politika publikoak gauzatzen dituzten edo interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ematen dituzten merkataritzako foru sozietateen balore edo titulu ordezkatzaileen aurka ere.

Bestalde, Foru Aldundiak edo foru erakunde autonomoek hartzekodunari ezarritako epean ordaintzen ez badiote, ordaindu beharreko berandutze interesen sortzapena ezartzen da.

Betebeharren preskripzioari dagokionez, foru arauak edo legeak beste epe bat ezartzen dutenean izan ezik, epe hori bost urtekoa izango da, izaera publikoko eskubideen preskripzioarekin gertatzen den bezala.

II. titulua Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzkoa da, eta bertan aurrekontu ziklo osoa garatzen da; aurrekontu orokorren definizioetik eta aurrekontu horien egitura eta edukia zehaztetik, aurrekontuak egiteko eta onartzeko prozedura, aurrekontu aldaketen araubidea, aurrekontuen gauzapena eta likidazioa eta, hala badagokio, luzapena arautzeraino.

I. kapituluak aurrekontuen programazioaren eta kudeaketaren printzipio gidariak ezartzen ditu, eta foru sektore publikoaren jardueraren programazioa gauzatzen duten urte anitzeko aurrekontu agertokien edukia definitzen du.

II. kapituluak aurrekontu orokorren edukia, prestaketari eta onarpenari buruzkoa da.

1. atalak honela definitzen ditu: foru sektore publikoak ekitaldi ekonomiko bakoitzean egin beharreko jarduera ekonomikoaren zuzendaritza programa osatzen duten erabaki multzo integratuaren adierazpen formala eta dokumentala, finantza eta kontabilitate terminoetan. Halaber, aurrekontu orokorren irismen subjektiboa zehazten du. Aurrekontu orokor horiek foru sektore publikoko erakunde bakoitzari dagozkionak eta haien edukia biltzen ditu, foru sektore publiko administratibo, enpresarial eta fundazionalako erakundeak bereiziz, eta urte naturalarekin bat datorren denbora eremua zedarritu eta diru sarreren eta gastuen aurrekontuaren osagaiak kalifikatzen ditu.

2. atalak diru sarreren eta gastuen egoeren egitura finkatzen du, sailkapen baten arabera (ekonomikoa, programen arabera, funtzionala, proiektuen arabera eta organikoa).

3. atalak aurrekontu orokorrak egiteko eta onartzeko prozesua ezartzen du. Horretarako, Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontuak Betearazteko Foru Arauaren xedea eta edukia zehazten ditu.

III. kapituluak aurrekontuko kredituak eta horien aldaketak arautzen ditu.

Aurrekontuko kredituei buruzko 1. atalak honela definitzen ditu: aurrekontu programetan agertzen diren helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduerak egiteko behar diren gastuen banakako esleipenak. Era berean, ordainketa kredituen eta konpromiso kredituen artean bereizten du, baimen ekitaldiari edo ondorengoei eragin, hurrenez hurren.

Ordainketa kredituen arauketak bereizi egiten ditu foru sektore publiko administratiboko erakundearen aurrekontuetan jasotakoak, izaera mugatzailea baitute eta kreditu lotura izan baitezakete, horien kontzeptua eta mailak oro har eta salbuespenekin zehaztuz, eta sektore publiko enpresarial eta fundazionalako erakundearen aurrekontuak osatzen dituztenak, gutxi gorabeherakoak, ezartzen diren salbuespenekin.

Konpromiso kredituei dagokienez, gehienez ere bost ekitalditan aplikatu ahalko direla zehazten da, eta horietako bakoitzari egotzitako gastuari muga bat ezartzen zaio. Konpromiso kredituen egoeran sartuko ez diren gastuak ere zerrendatzen dira.

Bestalde, onartutako konpromiso kredituak urteka aldatzeko eta banatzeko eta konpromiso kredituen egoera handitzeko aukera aurreikusten da, baldintzak eta eskumen eremua zehaztuta.

Finantzaketa atxikiko gastuetarako kredituak ere definitzen dira, eta beste kreditu figura batzuk arautzen dira, hala nola kreditu globala eta kreditu zabalgarriak.

2. atalak aurrekontuen aldaketen araubidea garatzen du. Aldaketa horiek gastuen eta sarreraren egoeraren zenbateko osoari eragiten dioten edo ez kontuan hartuta sailkatzen dira. Lehenengoan artean daude kreditua gaitzea, kredituak txertatzea, deuseztatze bajak eta kreditu gehigarriak. Bigarren kasuari kreditu transferentziak dagozkio. Bestalde, egokitzapen teknikoak zein kasutan egiten diren adierazten da.

Kreditu transferentziei dagokienez (hau da, gastuen egoeraren aldaketa, zeinak, gastuen zenbateko osoa aldatu gabe, kreditu baten zenbateko osoa edo partziala lotura maila desberdinei dagozkien aurrekontu partiden artean aldatzen baitu), hauek bereizten dira: ordainketa kredituei eragiten dietenak (haietarako, zehaztu egiten da zer kreditu egin daitezkeen, zer arauri lotuta dauden eta zein salbuespen dituzten), eta konpromiso kredituei eragiten dietenak (haietarako mugak ezartzen dira). Era berean, arauak horri buruzko baimenen eskumen esparrua mugatzen du.

Ekitaldian benetan lortu diren eta aurrekontuko diru sarreraren egoeretan aurreikusi ez diren sarrerengatiko kreditu gaikuntzei dagokienez, aurrekontu aldaketa hori eragin dezaketen diru sarreraren kasuak zehazten dira, bai eta gaikuntzaren helmuga ere, aldaketa eragin duen diru sarreraren tipologiaren eta eskumen esparruaren arabera.

Kreditu gehigarriaren figura ere arautzen da, baldin eta hurrengo ekitaldira geroratzerik onartzen ez duen gastu bat egin behar bada eta krediturik ez badago, edo kreditu hori nahikoa ez bada eta egon daitezkeen aldaketak agortu badira.

Gainera, aurrekontuetan aurreko ekitaldiko aurrekontuko gastuen egoeretan sartutako ordainketa kredituak txertatzeko aukera aurreikusten da, eta aurrekontu aldaketa horren baldintzak, kasuak eta arauak finkatzen dira.

Bestalde, deuseztatze baja arautzen da. Baja horrek aurrekontuaren partida bati esleitutako kreditua guztiz edo partzialki murriztea dakar.

IV. kapitulua foru sektore publiko administratiboko erakundeen aurrekontuak kudeatzeari eta gauzatzeari buruzkoa da.

1. atalak kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren funtzionamendu printzipioak ezartzen ditu.

2. atalak foru arauaren aurreproiektu guztietan eta foru araua erregelamendu bidez garatzeko dekretu proiektu guztietan memoria ekonomiko bat sartzea xedatzen du, baldin eta horiek aplikatzeak gastu edo diru sarrera publikoak ekar baditzake.

3. atalak diru sarreraren aurrekontuaren kudeaketa arautzen du. Bi fasetan egingo da, bata bestearen atzetik edo aldi berean: eskubidea aitortzea eta azkentzea. Eta horretarako eskumen esparrua ezartzen du.

4. atalak gastuen aurrekontuaren kudeaketa garatzen du. Lehenik eta behin, aurrekontuko kredituak zer egoeratan egon daitezkeen zehazten du, hau da, eskuragarri dauden ala ez. Jarraian, gastuen aurrekontua betearazteko faseak deskribatzen ditu, ordena honetan: erreserba, gastuaren baimena, gastuaren xedapena eta betebeharraren aitortzea. Orobat, betebeharrak iraungitzeko moduak aipatzen ditu, eta gastuen aurrekontua betearazteko faseen eskumen esparrua ezartzen du.

Bestalde, justifikatu beharreko ordainketak arautzen ditu, hau da, betebeharra onartzeko eskatzen den dokumentazioa alde aurretik aurkeztu gabe gastuei aurre egiteko salbuespenez ematen diren ordainketa aginduak. Halaber, bidegabeko ordainketaren kontzeptua eta itzultzeagatiko diru sarrerak jasotzearen aurrekontu ondorioa mugatzen ditu.

Aurrekontuen likidazioa V. kapituluaren jorratzen da. Eskubideak eta betebeharrak likidatzeko data dagokion urte naturaleko abenduaren 31 izango da. Bestalde, hondakinak arautzen dira, hau da, aurreko ekitaldiko azken egunean ordaindu ez diren betebeharrak aitortuak eta aurreko ekitaldia ixtean kobratzeke dauden eskubide aitortu eta likidatuak.

Aurrekontuen luzapena VI. kapituluaren garatzen da. Lehenik eta behin, ezartzen du aurrekontua betearazteko foru araua arautu behar duen ekitaldiaren lehen eguna baino lehen onesten ez bada, aurreko ekitaldiko aurrekontuak automatikoki luzatuzat joko direla, berriak onartu eta argitaratu arte, eta luzatutako aurrekontuen zuzkiduren zenbatekoa ezartzen du. Jarraian, luzapenaren araubidea arautzen du. Luzapenaren xede diren eta errespetatu behar diren aurrekontuetan onartutako mugak, luzatutako kredituen zenbatekoaren mugak eta luzapen aldiko aurrekontu aldaketan araubidea jasotzen ditu araubide horrek.

Finantza arloa III. tituluaren garatzen da, Foru Diruzaintzari eta finantza kudeaketari buruzkoan.

I. kapituluak Foru Diruzaintza mugatzen du. Diruzaintza hori Arabako Foru Aldundiaren eta haren foru erakunde autonomoen finantza baliabide guztiek osatzen dute, bai aurrekontuko eragiketek bai aurrekontuz kanpoko eragiketek sortutako diruak, baloreek edo kredituek.

Era berean, Foru Diruzaintzaren eta horretarako eskumena duten organoen kudeaketak barne hartzen dituen eginkizunak finkatzen ditu. Organo horiek urteko finantza plan bat egingo dute, ordainketen denbora banaketa egokia lortzeko eta zorpetze beharrak behar bezala balioesteko.

Bestalde, ordainketaren antolamendu materialaren eskumen esparrua eta aplikazio irizpideak zehazten ditu, bai eta kontuetan gordailututako funtsak erabiltzeko sinadura mankomunituaren baldintza ere. Halaber, kobratzeko eta ordaintzeko bideak, funtsen kanalizazioa eta gordailua eta finantza erakundeekiko harremanak arautzen dira.

Aktibo eragiketei dagokienez, II. kapituluak aktiboak eskuratzeko eragiketak eta gordailu eta kredituak arautzen ditu, eta Arabako Foru Aldundiak sektore publikoa enpresariala eta fundazionala osatzen duten erakundeekin egin ditzakeen finantzaketa eragiketak zehazten ditu.

III. kapituluak foru aldundiak, foru erakunde autonomoek eta hauek zaintzeko, kudeatzeko, gauzatzeko eta itzultzeko eskudun diren organoek jasotako bermeei buruzkoa da.

IV. kapituluak 1. atalean zehatz-mehatz garatzen du foru sektore publiko administratiboaren zorpetzea, eta Arabako Foru Aldundira mugatzen du zorpetze hori. Orobat, zorpetzearen modalitateak eta ezaugarriak finkatzen ditu, eta epe luzerako eta laburrerako zorpetzearen eta kostua murrizteko edo arriskua mugatzeko egin daitezkeen finantza eragiketen muga eta baldintzak ezartzen ditu. 2. atalean, Arabako Foru Aldundiak jaulki dezakeen zor publikoaren araubide osoa arautzen da, jaulkipenetik, instrumentaziotik eta kudeaketatik hasi eta eskualdaketa eta preskripzio araubideraino.

V. kapituluak sektore publiko enpresarial eta fundazionalako erakundeek egin ditzaketen zorpetze eragiketak eta arrisku estaldurako eragiketak arautzen ditu.

VI. kapituluak Arabako Foru Aldundiak abalak eta bestelako bermeak ematea garatzen du. Hala, honako hauek zehazten ditu: erakunde onuradunak, eman beharreko urteko gehieneko zenbatekoa, baimena emateko eta formalizatzeko eskudun den organoa, komisioaren sortzapena, hala badagokio, eta ez ordaintzearen ondorioak. Era berean, foru sektore publikoko gainerako erakundeek abalak edo bestelako bermeak emateko kasua eta baldintzak ezartzen ditu.

IV. tituluak foru sektore publikoaren kontabilitatea arautzen du, eta I. kapituluaren sektore hori osatzen duten erakundeen ekonomia, finantza eta aurrekontu informazioko sistema gisa definitzen da.

Kapitulu berean kontabilitateari aplikatu beharreko printzipioak eta arauak ezartzen dira, erakunde sektore publikok administratibo, enpresarial edo fundazionalakoa den bereizita. Era berean, foru sektore publikoaren kontabilitatearen xedeak zerrendatzen dira.

II. kapituluak Arabako Lurralde Historikoaren kontu orokorra arautzen du, haren edukia eta izapidetzeko eta onartzeko prozedura zehaztuz. Batzar Nagusiei eman beharreko kontabilitate informazioa ere arautzen du.

III. kapituluak Foru Gobernu Kontseiluak eta ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloetan eskumena duen sailak kontabilitate arloan dituzten eskumenak zehazten ditu.

V. titulua kontrol ekonomikoari buruzkoa da oso-osorik.

I. kapituluak honela definitzen du kontrol ekonomikoa: Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren ekonomia eta finantza jardueraren gainean egiten dena, Foru Ogasunaren berezko gaien gainean egiten dena, eta, horietatik eratorrita edo horiek adierazita, foru ogasuna osatzen duten eskubide eta betebeharrak guztiekin lotura zuzena edo zeharkakoa duten banakako eragiketen gainean egiten dena. Halaber, aplikazio eremua, araubidea, printzipioak eta eskumenak ezartzen ditu.

II. kapituluak kontabilitatearen kontrola arautzen du, hau da, foru sektore publikoaren jarduera ekonomikoaren jarraipena, eragiketa guztiek kontabilitatean isla egokia izango dutela ziurtatzeko eta bermatzeko. Era berean, kontrol horren irismena ezartzen da.

III. kapituluak kontu-hartzaitzako kontrola garatzen du, hiru modalitateetan: ekonomia eta finantza eta kudeaketa kontrola, ekonomia eta zerga kontrola eta ekonomia eta arau kontrola. Lehenengoari dagokionez, hau da, auditoretza tekniken bidez gauzatzen denari dagokionez, haren helburuak eta jarduteko modua ezartzen dira, eta finantza kontrolerako txostenak eta aktak antolatzen dira. Bestalde, aurreikusten diren ekonomia eta finantza eta kudeaketa kontrolerako jarduerak Urteko Auditoretza Planean sartuko dira, eta plan horren edukia eta onarpena ezartzen dira.

Beste alde batetik, ekonomia eta zerga kontrolari dagokionez, aplikagarri zaizkien xedapenak betetzen direla bermatzeko, foru sektore publiko administratiboko erakundeen jarduera ekonomikoa fiskalizatzea helburu duena, kontrol horren norainokoa eta hedadura garatzen dira, eta fiskalizazio txostenak antolatzen dira.

Azkenik, ekonomia eta arau kontrola arautzen da, Arabako Foru Aldundiak egiten dituen foru arauen aurreproiektuak eta eduki ekonomikoa duten xedapen orokorren proiektuak fiskalizatzeko. Horrela, xedea eta edukia eta jarduteko modua ezartzen dira.

VI. tituluak Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko agintariak eta gainerako langileek bete behar duten erantzukizun araubidea ezartzen du, baldin eta foru arau honen xedapenak urratuz erabakiak hartzen badituzte edo egintzak gauzatzen badituzte. Horrela, erantzukizuna sor dezaketen gertaerak, erantzukizun motak eta aplikatu beharreko eskumen eta prozedura esparrua tipifikatzen dira. Kontu-hartzaitzako eginkizuna betetzen dutenen erantzukizuna ere definitzen da, eta sortutako kalteen zenbatekoaren araubide juridikoa jasotzen da.

Foru arau honek, gainera, lau xedapen gehigarri ditu, Arabako Lurralde Historikoko Batzar Nagusiei eta foru sektore publikokoak ez diren zenbait partzuergori buruzkoak nabarmenduz, bai eta xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ere.

## ATARIKO TITULUA. XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

### 1. artikulua. Foru arauaren xedea

Foru arau honen xedea Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren aurrekontu, ekonomia, finantza, kontabilitate, kontu-hartzaitza eta kontrol araubidea arautzea da.

### 2. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa

1. Foru arau honen ondorioetarako, hauek sartzen dira Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren barruan:

- a) Arabako Foru Aldundia.
- b) Foru erakunde autonomoak.

c) Merkataritzako foru sozietateak.

d) Foru fundazioak.

e) Foru partzuergoak.

f) Foru erakunde publiko enpresarialak.

2. Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa honela sailkatzen da:

2.1. Foru sektore publiko administratiboa, hauek osatuta:

a) Arabako Foru Aldundia, foru sektore publikoko lurralde izaerako erakunde bakarra.

b) Foru erakunde autonomoak.

c) Foru partzuergoak, ezaugarri hauetakoren bat betez gero:

1. Jarduera nagusia ez izatea merkatu legearen arabera kontsumo indibidual edo kolektiborako ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea; edo, bestela, errenta eta aberastasuna birbanatzeko eragiketarako egitea, betiere irabazi asmorik gabe.

2. Finantzaketa gehienbat merkataritzako diru sarreretatik ez jasotzea; foru arau honi dagozkionez, merkataritzako diru sarrerak izango dira ondasun emate eta zerbitzugintzen ordain gisa jasotako diru sarrerak, edozein izaeratakoak direla ere.

2.2. Foru sektore publiko enpresariala, hauek osatuta:

a) Merkataritzako foru sozietateak.

b) Foru partzuergoak, arestiko 2.1.c) letrako baldintzarik betetzen ez badute.

c) Foru erakunde publiko enpresarialak.

2.3. Foru sektore publiko fundazionala, foru arau honen 5. artikuluan definitutako foru fundazioek osatuta.

### **3. artikulua. Foru erakunde autonomoak**

1. Arabako Foru Aldundiaren mendeko edo hari lotutako erakunde publikoak dira, berezko nortasun juridiko publikoa eta kudeatzeko autonomia dutenak, zerbitzu publikoak sustatzeko, emateko edo kudeatzeko administrazio jarduerak egiteko edo kontraprestazioa jaso dezaketen interes publikoko ondasunak ekoizteko sortuak; haien ezaugarriek deszentralizazio funtzionaleko araubidean antolatzea justifikatzen dute, eta zuzenbide publikoaren mende jarduten dute erabat.

2. Foru erakunde autonomoek urtero prestatuko dute diru sarrera eta gastuen aurrekontua, foru arau honetan aurreikusitakoaren arabera, eta Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorretan sartuko dute. Onartutako aurrekontu kredituek eta horien aldaketek foru arau honetan ezarritako xedapenak eta ekitaldi bakoitzeko aurrekontua burutzeari buruzko foru arauak beteko dituzte.

### **4. artikulua. Merkataritzako foru sozietateak**

1. Merkataritzako foru sozietateak dira merkataritza sozietateak, baldin eta haien kapital sozialean foru sektore publikoaren partaidetza ehuneko 50etik gorakoa bada.

Ehuneko hori zehazteko, foru sektore publikoko erakundeei dagozkien partaidetzak batuko dira, kapital sozialean horietako batzuek parte hartzen badute.

2. Merkataritzako foru sozietateek foru arau honetan eta aplikagarri zaien ordenamendu juridiko administratiboan eta zuzenbide pribatuko ordenamenduan ezarritako aurrekontu, ekonomia, finantza, kontabilitate, kontu-hartzailatza eta kontrol araubidea aplikatuko dute. Berziki, aplikagarri zaizkien kontabilitate printzipio eta arauen arabera formulatu eta aurkeztuko dituzte beren kontuak.



## 5. artikulua. Foru fundazioak

1. Foru fundazioak dira baldintza hauetakoren bat betetzen duten fundazioak:

a) Hasieratik eratzea, foru sektore publikoaren zuzeneko edo zeharkako ekarpen nagusi batekin, edo ekarpen hori eratu ondoren jasotzea.

b) Fundazioaren ondarearen ehuneko 50 baino gehiago foru sektore publikoko subjektuek modu iraunkorrean emandako edo lagatako ondasun edo eskubideak badira.

c) Patronatuko boto eskubide gehienak foru sektore publikoko ordezkarietara badagozkie.

2. Foru fundazioen berezko jarduerak dira, irabazi asmorik gabe, interes orokorreko helburuak betetzeko egiten direnak, zerbitzua doan zein kontraprestazio bidez eman. Sektore publikoko erakunde fundatzaileen eskumen eremuari lotutako jarduerak baino ezin izango dituzte egin, eta erakunde horien helburuak lortzen lagundu beharko dute, beren eskumen propioak bereganatzea ekarri gabe, legeak berariaz aurreikusi ezean. Foru fundazioek ezin izango dute ahalmen publikorik erabili.

3. Jarduerak finantzatzeko eta fundazioari eusteko, aurreikusi behar da foru fundazioen ondarean sektore pribatuaren ekarpena egon daitekeela, gehiengoa izan gabe.

4. Foru fundazioek foru arau honetan eta aplikagarri zaien gainerako ordenamendu juridikoan ezarritako aurrekontu, ekonomia, finantza, kontabilitate, kontu-hartzailletza eta kontrol araubidea aplikatuko dute, hargatik haiek kontrolatzeko ahalmena esleituta duten fiskalizazio organoetara esleitutako eskumenak eragotzi gabe.

Bereziki, aplikagarri zaizkien kontabilitate printzipio eta arauen arabera formulatu eta aurkeztuko dituzte beren kontuak, bai eta fundazioei buruz indarrean dagoen araudiaren arabera ere.

## 6. artikulua. Foru partzuergoak

1. Foru partzuergoak dira foru sektore publikoko erakunderen bati atxikita dauden partzuergoak, baldin eta erabakitzeko ahalmena badute, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 120. artikuluko 2. apartatuan a) letratik e) letrara bitartean aurreikusitako egoeraren bat gertatzen delako.

2. Foru partzuergoek foru arau honetan ezarritako aurrekontu, ekonomia, finantza, kontabilitate, kontu-hartzailletza eta kontrol araubidea aplikatuko dute.

## 7. artikulua. Foru erakunde publiko enpresarialak

1. Foru erakunde publiko enpresarialak izaera publikoko entitateak dira, eta hau da haien xedea: zerbitzu jarduerak egitea, zerbitzuak kudeatzea edo kontraprestazioa jaso dezaketen interes publikoko ondasunak ekoiztea. Foru erakunde publiko enpresarialak zuzenbide pribatuaren bidez arautzen dira, salbu eta beren organoen borondatearen eraketan, esleituta dituzten administrazio ahalmenen erabileran eta estatutuetan eta aplikatzeko den gainerako araudian erakundeentzat araututako berariazko alderdietan.

2. Erakunde publiko enpresarialak sortzeko eta azkentzeko foru araua beharko da.

Az kentzeak ez du berariazko araurik eskatuko sortzeko arauan edo beste batean horren kausak eta hura gauzatzeko prozedura ezarri direnean.

Bere barne arau edo estatutuen edozein aldaketa Arabako Foru Aldundiak onartu beharko du aldezturik.

Onartutako aldaketan berri emango zaie Arabako Lurralde Historikoko Batzar Nagusiei.

3. Foru erakunde publiko enpresarialen aurrekontu, ekonomia, finantza, kontabilitate, eta kontu-hartzailletza eta kontrol araubidea foru arau honetan berariaz aplikatzekoak zaizkien xedapenek arautuko dute, eta, horien aurka ez doazen gaietan, zuzenbide pribatuak.



**8. artikulua. Foru sektore publikoaren jarduketa printzipioak**

Foru sektore publikoko erakundeek honako printzipio hauen arabera jardungo dute ekonomia eta finantza arloan: legezketasuna, objektibotasuna, ekonomia, eraginkortasuna, efizientzia, aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasangarritasuna, kudeaketaren gardentasuna, kontrola, kutxa batasuna eta organo eta erakundeen arteko koordinazioa.

**9. artikulua. Araubidea**

1. Foru arau honetan arautzen da foru sektore publikoaren aurrekontu, ekonomia, finantza, kontabilitate, kontu-hartzailletza eta kontrol araubidea, hargatik eragotzi gabe beste arau berezi batzuetan eta Europako Erkidegoko araudian xedatutakoa.

2. Ordezko izaera izango dute administrazio zuzenbideko gainerako arauak eta, halakorik ezean, zuzenbide erkideko arauak.

**TITULUA I. ARABAKO FORU OGASUNA****I. KAPITULUA. ARABAKO FORU OGASUNAREN DEFINIZIOA ETA ESKUMENAK****10. artikulua. Arabako Foru Ogasuna**

1. Arabako Foru Ogasuna 2. artikuluko 1. apartatuko a) eta b) letretan aurreikusitako erakundeentzako titulartasuna duten eduki ekonomikoko eskubide eta betebeharrak osatzen dute.

2. Arabako Foru Ogasunak foru arau hau, ekitaldi bakoitzeko aurrekontua betearazteko foru araua eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenak izango ditu arau.

**11. artikulua. Arabako Foru Ogasunaren eskumenak**

Aurreko artikuluan aipatutako eskubideez baliatzean eta betebeharrak betetzean, Arabako Foru Ogasunak Estatuko Ogasun Publikoaren eskumen berberak izango ditu, foru arau edo lege mailako berariazko xedapenik ez bada.

**II. KAPITULUA ARABAKO FORU OGASUNAREN ESKUBIDEAK****1. ATALA. ARABAKO FORU OGASUNAREN ESKUBIDEEN ARAU KOMUNAK****12. artikulua. Arabako Foru Ogasunaren eskubideen sailkapena**

Arabako Foru Ogasunaren eskubideak izaera publikoko eta pribatuko eskubideetan sailkatzen dira.

a) Izaera publikoko eskubideak dira zergak eta eduki ekonomikoko gainerako eskubideak, baldin eta 2. artikuluko 1. apartatuko a) eta b) letretan aurreikusitako erakundeentzako titulartasuna badute eta administrazio ahalmenak erabiltzearen ondorio badira.

b) Izaera pribatuko eskubideak dira 2. artikuluko 1. apartatuko a) eta b) letretan aurreikusitako erakundeentzako direnak, administrazio ahalmenik gabe jarduten dutenean.

**13. artikulua. Arabako Foru Ogasunaren eskubideen administrazioa**

1. Arabako Foru Ogasunaren eskubide ekonomikoak administrazioa, titulartasunaren arabera, Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloetan eskumena duen sailari dagokio, edo foru erakunde autonomoetako organo eskudunei, hargatik eragotzi gabe foru arau horrek edo beste batzuek foru sektore publikoko beste sail edo erakunde batzuei esleitzen dizkieten eskumenak.

2. Eskubide bakoitzaren berariazko araudian besterik ezartzen ez bada, eskubide horren titularrak den erakundearen betebeharrak guztiak finantzatzeko erabiliko da haren produktua. Helburu jakin batzuetarako eskuzabaltasunetatik datozen eskubideak direnean, ez da esanbidezko atxikipen xedapenik behar, baldin eta unean-unean indarrean dagoen araudiaren arabera onartzen badira.

3. Arabako Foru Ogasunaren eskubide ekonomikoen administrazioaren ardura duten pertsonak edo erakundeak Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloetan eskumena duen sailaren kontrolpean egongo dira beti.

4. Fidantza eskatu ahal izango zaie Arabako Foru Ogasunaren funtsak edo baloreak erabiltzen edo zaintzen dituzten pertsona eta erakundeei, arauzko xedapenek zehaztutako zenbatekoan eta moduan.

#### **14. artikulua. Arabako Foru Ogasunaren eskubideek bete beharreko mugak**

1. Ezin izango dira Arabako Foru Ogasunaren eskubide ekonomikoak besterendu, zergapetu edo errentan eman, foru arauak eta legeak araututako kasuetatik kanpo.

2. Ez da salbuespen, barkamen, beherapen eta luzamendurik ere emango Arabako Foru Ogasunari eskubideak ordaintzerakoan, foru arauak eta legeak zehaztutako kasu eta moduetan izan ezik, 20. artikuluan zenbateko txikiko eskubide ekonomikoei buruz ezarritakoari kalterik egin gabe.

3. Foru arau honen 24. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe, ezin izango da Arabako Foru Ogasunaren eskubideen gaineko transakzio judizialik edo judizioz kanpoko-rik egin, ez eta horien inguruan sortzen diren gatazkak arbitrajepean jarri ere, Foru Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez izan ezik, horrek berariaz baimentzen badu, berariazko foru arauetan edo legeetan xedatutakoa salbu.

#### **15. artikulua. Arabako Foru Ogasunak ekintza judizialak erabiltzea**

Arabako Foru Ogasunak bere eskubideak hobeto defendatzeko beharrezkoak diren ekintza judizialak erabili ahal izango ditu.

#### **16. artikulua. Arabako Foru Ogasunari zor zaizkion zenbatekoak geroratzea edo zatikatzea**

1. Zuzenbide publikoko harreman juridiko baten ondorioz Arabako Foru Ogasunari zor zaizkion zenbatekoak geroratu edo zatikatu ahal izango dira, dagozkion berandutze interesak sortuta, Arabako zergei buruzko foru araudian eta aplikatzekoa den gainerako araudian araututako kasuetan eta prozeduraren eta baliabideen bidez.

2. Kasu berberetan eta aurreko paragrafoan ezarritako baldintza berberekin, Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen saileko titularrak zuzenbide pribatuko harreman juridiko baten ondorioz zor diren zenbatekoen geroratzeak eta zatikatzeak onartu ahalko ditu.

3. Zor diren zenbatekoak bermatu egin beharko dira, erregelamendu bidez ezarritako kasuetan izan ezik.

4. Administrazio publikoek edo sektore publikoko beste erakunde batzuek izaera publiko edo pribatuko harreman juridikoen ondorioz Arabako Foru Ogasunari zor dizkioten zenbatekoak geroratzeko eta zatikatzeko, berariazko legeria bete beharko da, eta legeria horrek administrazioen arteko beharrezko elkarrekotasuna hartuko du kontuan.

#### **17. artikulua. Zorren konpentsazioa**

1. Erregelamenduz ezartzen diren kasuetan eta baldintzekin, Arabako Foru Ogasunak izaera publikoko eskubideengatik dituen zorrak konpentsazio bidez azkendu ahal izango dira, osorik edo zati batean, baldin eta borondatezko nahiz betearazpenezko diru bilketaren kudeaketa fasean badaude, Ogasunak zordunaren alde aitortutako kredituekin.

2. Konpentsazioa ofizioz edo zorra ordaintzeko betebeharra duen pertsonak eskatuta erabakiko da.

3. Administrazio publikoek edo sektore publikoko beste erakunde batzuek Arabako Foru Ogasunarekin dituzten edozein motatako zorrak, osorik edo zati batean, konpentsazio bidez azkendu ahalko dira, epez kanpoko zor likidoak eta galdagarriak direnean.

4. Zuzenbide publikoko sarrerak arautzen dituzten foru arauak eta legeak kontu korronteko sistemak ezartzea aurreikusi ahalko dute, Arabako Foru Ogasunaren aurrean kredituak eta zorrak konpentsatzea eta ordaintzea errazteko. Orobat, foru arauak eta legeak ezarriko dute Arabako Foru Ogasunaren aurrean hainbat pertsonak dituzten kredituak eta zorrak, pertsona horiek eskatuta, zein kasutan tratatu ahalko diren modu bateratuan konpentsatzeko.

#### **18. artikulua. Arabako Foru Ogasunaren eskubideen preskripzioa**

1. Arabako Foru Ogasunaren eskubideak preskripzio epeen menpe egongo dira, berariaz eskubide bakoitzari ezargarri zaizkion arauetan, zuzenean edo ordez, zehaztutakoaren arabera.

2. Foru arauetan edo errekurtsioak arautzen dituzten legeetan ezarritakoa gorabehera, Arabako Foru Ogasunaren honako ahalmen hauek erabiltzeko aukera preskribatuko da bost urteren buruan:

a) Izaera publikoko kredituak haren alde aitortzea edo likidatzea; epe hori eskubidea erabili ahal izan zen egunetik aurrera zenbatuko da.

b) Aitortutako edo likidatutako izaera publikoko kredituak ordaintzeko galdatzea, jakinarazten diren egunetik zenbatzen hasita, edo, jakinarazpena nahitaezkoa ez bada, epemugatik zenbatzen hasita.

Eskubideen preskripzioa eten egingo da lege ezarritakoaren arabera, eta ofizioz aplikatuko da, betebeharrekoak eskatu edo salbuetsi beharrik gabe.

3. Eskubide pribatuen preskripzioa ordenamendu juridiko pribatuak arautuko du.

4. Arabako Foru Ogasunaren preskribatutako eskubideei baja eman beharko zaie dagozkien kontuetan, dagozkien espedientea izapidetu ondoren.

5. Arabako Foru Ogasunaren eskubideen preskripzioa dela eta egin beharreko erantzukizunen aitortpenak eta galdatzeak foru arau honen VI. tituluan xedatutakoa beteko dute.

#### **19. artikulua. Berandutze korrituak**

1. Arabako Foru Ogasunari zor zaizkion zenbatekoek berandutze korrituak sortuko dituzte mugaegunaren biharamunetik aurrera.

Atal honetan sartzen dira erakunde laguntzaileen, bulego likidatzaileen eta Arabako Foru Ogasunaren konturako gainerako erakunde biltzaileen bidez bildutako zenbatekoak, erakunde horiek Foru Diruzaintzan ezarritako epeetan sartzen ez dituztenak.

2. Berandutza interesa, eska daitekeen aldian indarrean dagoen diruaren legezko interesa izango da, ehuneko 25 gehituta, foru arau batek besterik ezarri ezean.

#### **20. artikulua. Zenbateko txikiko eskubide ekonomikoak**

Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloko eskumenak dituen saileko titularrak honako hauek arautu ahalko ditu foru agindu bidez:

a) Likidazioak ez egitea, baldin eta likidazio horien zorrak haien ordainarazpenaren eta biltzetaren kostua estaltzeko nahikotzat jotzen den zenbatekoa baino txikiagoak badira, zorraren izaerari buruzko irizpideak kontuan hartuta.

b) Oro har, zordun berari dagozkion zor guztiak baliogabetzea eta haiei baja ematea kontabilitatean, zordun horrek zor duen guztia kalkulatzeko eta finkatzeko den zenbatekoa baino txikiagoa denean, dirubiltzetaren eraginkortasunari eta dirubiltzetaren kostuari buruzko irizpideen arabera.

## 2. ATALA. ARABAKO FORU OGASUNAREN IZAERA PUBLIKOKO ESKUBIDEAK

### 21. artikulua. Izaera publikoko eskubideak

Izaera publikoko eskubideak dira hauetatik datozenak:

a) Arabako Lurralde Historikoko zerga sistema pribatiboa osatzen duten tributua, Estatua-ren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Ituna onartzen duen Legean ezarritakoaren arabera, bai eta horren ondoriozko diru sarrera guztiak ere.

b) Arabako Lurralde Historikoko zerga sistema osatzen duten beste tributu batzuk.

c) Prezio publikoak.

d) Beste erakunde publiko batzuen transferentziak eta dirulaguntzak.

e) Zorpetze eragiketak.

f) 2. artikuluko 1. apartatuko a) eta b) letretan aurreikusitako erakundeek ezarritako isunak eta gainerako zehapen ekonomikoak.

g) Administrazio egintzen betearazpen subsidiarioaren ondoriozko ordainarazpenak, kautelazkoak izan zein ez.

h) Izaera publikoko eskubideei eragindako kalte-galeren kalte-ordainak.

i) Zuzenbide publikoko diru sarrerei dagozkien interesak eta errekarquak.

j) Betebehar publikoak betetzeko bermeak diren zenbatekoak.

k) 2. artikuluko 1. apartatuko a) eta b) letretan aurreikusitako erakundeek jaso beharreko zenbatekoak, sustapenerako edo interes publikorako beste pertsona publiko edo pribatu batzuei emandako mailegu eta bermeei buruzko kontratuen ondoriozkoak.

l) Emandako dirulaguntzen itzulketak, baldin eta 2. artikuluko 1. apartatuko a) eta b) letretan aurreikusitako erakundeen alde itzuli behar badira, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

m) Aurreko paragrafoetan sartzen ez den beste edozein eskubide publiko.

### 22. artikulua. Arabako Foru Ogasunaren eskubide publikoen araubide juridikoa

Arabako Foru Ogasunaren eskubide publikoak kapitulu honetan eta aplikatu beharreko arau berezietan jasotako arauen arabera arautuko dira. Bereziki, zergen aplikazioa Arabako zergei buruzko foru araudian xedatutakora egokituko da, bere iturri sistemaren arabera.

### 23. artikulua. Arabako Foru Ogasunaren eskubideak eskuratzea, sortzea eta azkentzea

1. Arabako Foru Ogasunaren izaera publikoko eskubideak eskubide bakoitza arautzen duen araudian xedatutakoaren arabera eskuratu eta sortzen dira, eta Arabako zergei buruzko foru araudian eta aplikatzekoak diren foru arau eta legeetan aurreikusitako arrazoiengatik azkentzen dira.

2. Foru arau honetan eta eskubide bakoitza arautzen duen araudian ezarritakoari kalterik egin gabe, Arabako Foru Ogasunaren eskubide publikoak azkentzeko moduen prozedura, ondorioak eta betekizunak Arabako zergei buruzko foru araudian eta aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritakoaren mende egongo dira.

### 24. artikulua. Arabako Foru Ogasunaren eskubide publikoei dagozkien eskumenak

1. Eskubide publiko bakoitzarentzat araudi erregulatzailleak ezarritako eskumenak alde batera utzi gabe, eskubide horiek kobratzeko, hala badagokio, Arabako zergei buruzko foru araudian eta erregelamendu bidezko garapenean tributuetarako ezarritako administrazio prozedurak eta eskumenak beteko dira.

2. Arabako Foru Ogasunaren kredituen izaera pribilegiatuak lehiaketa prozesuetan parte ez hartzeko eskubidea ematen dio Ogasunari. Hala ere, prozesu horietan lehiaketei buruzko legerian aurreikusitako akordioak edo hitzarmenak sinatu ahalko ditu, eta zordunarekin bat etorri eta egoki irizitako bermeekin, ordaintzeko baldintza berezi batzuk adostu ahal izango

ditu. Baldintza horiek ezin dira zordunarentzat mesedegarriagoak izan prozesu judizialari amaiera ematen dion hitzarmenean edo akordioan jasotakoak baino. Era berean, kreditu horiek konpentsatzea erabaki ahalko du, diru sarrera publikoak arautzen dituen araudian aurreikusitako baldintzetan.

3. Aurreko zenbakian aipatzen diren akordio edo hitzarmenak izenpetu eta egiteko, Foru Gobernu Kontseiluaren erabaki bidezko baimena beharko da.

#### **25. artikulua. Eskubide publikoen kudeaketa**

1. Zergen kudeaketa Arabako zergei buruzko foru araudian eta aplikatzekoa den gainerako araudian xedatutakora egokituko da.

2. Gainerako eskubideen kudeaketa kasu bakoitzean aplikatzekoak diren xedapenek araututakora egokituko da.

3. Tributuak ez diren izaera publikoko eskubideak betearazpen aldian biltzeko, Arabako zergei buruzko foru araudian eta aplikatzekoa den gainerako araudian aurreikusitakoa aplikatuko da.

#### **26. artikulua. Premiamendu probidentzia eta premiamendu prozedura etetea**

1. Organo eskudunak emandako premiamendu probidentzia titulu nahikoa izango da premiamendu prozedura hasteko, eta epai judizialaren indar betearazle bera izango du izaera publikoko eskubideei dagozkien zorrak ordaintzera behartuta dauden pertsonen ondasun eta eskubideen aurka jarduteko.

2. Premiamenduko administrazio prozedura eten ahal izango da, errekurso eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak arautzen dituzten xedapenetan eta arauz aurreikusitako gainerako kasuetan aurreikusitako moduan eta baldintzetan.

3. Nahitaezko diru bilketako organoek berehala etengo dute premiamendu prozedura, bermerik eman beharrik gabe, baldin eta interesdunak frogatzen badu zorra zehazterakoan bere kalterako akats materiala, aritmetikoa edo egitezkoa gertatu zaiola, edo zor hori preskribatu egin dela edo ordaindu, barkatu, konpentsatu, atzeratu edo eten egin dela.

### **3. ATALA. ARABAKO FORU OGASUNAREN IZAERA PRIBATUKO ESKUBIDEAK**

#### **27. artikulua. Izaera pribatuko eskubideak**

Izaera pribatuko eskubideak dira hauetatik datozenak:

a) 2. artikuluko 1. apartatuko a) eta b) letretan aurreikusitako erakundeen jabetza ondasunak erabiltzetik edo xedatzetik datozen etekinak edo edozein motatako produktuak, ekonomikoki balioetsi daitezkeenak, bai eta haien titulartasuneko eskubide erreal edo pertsonaletatik datozenak ere, betiere erabilera edo zerbitzu publikoari atxikita ez badaude.

b) 2. artikuluko 1. apartatuko a) eta b) letretan aurreikusitako erakundeek jaraunspen, legatu edo dohaintza bidez eskuratutakoak.

c) Zuzenbide pribatuko harreman juridikoen ondorio den beste edozein eskubide.

#### **28. artikulua. Eskubide pribatuen eraginkortasuna**

Arabako Foru Ogasunaren eskubide pribatuak zuzenbide pribatuko arauen eta prozeduren arabera gauzatuko dira.

### **III. KAPITULUA. ARABAKO FORU OGASUNAREN BETEBEHARRAK**

#### **29. artikulua. Betebeharren iturriak**

Arabako Foru Ogasunaren betebeharrak foru arauetatik, legeetatik, negozio juridikoetatik eta zuzenbidearen arabera haiek sortzen dituzten egintza edo egitateetatik sortzen dira.

**30. artikulua. Betebeharren galdagarritasuna**

1. Arabako Foru Ogasunaren betebeharrak aurrekontuak gauzatzerean ondorio direnean galdatu ahal dira, foru arau honetan xedatutakoaren arabera, bai eta epai judizial irmoaren edo behar bezala baimendutako aurrekontuz kanpoko eragiketen ondorioz ere.

2. Betebehar horiek prestazioek edo zerbitzuek eragin badituzte, ordainketa ezin izango da egin hartzekodunak bere betebehar korrelatiboa bete edo bermatu ez badu.

**31. artikulua. Erakunde betebeharrak**

Foru Ogasunaren erakunde betebeharrak dira Arabako Foru Aldundiak bete beharrekoak:

a) Estatuko Administrazioarekin, Ekonomia Itunean eta kupoa zehazteko metodologia zehazteko legeetan xedatutakoaren arabera.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideekin edo Arabako Lurralde Historikoko gainerako foru aldundiekin eta toki erakundeekin, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko Harremanak arautzen dituen Legean xedatutakoa, eta baliabideak banatzeko eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologia onartzen duten legeak betez.

c) Arabako Lurralde Historikoko Batzar Nagusiekin, haien finantzaketari dagokionez.

**32. artikulua. Betebeharrak azkentzea**

1. Arabako Foru Ogasunaren betebeharrak Kode Zibilean eta gainerako ordenamendu juridikoan jasotako arrazoiengatik azkentzen dira.

2. Aurrekontu kredituen kudeaketa, Arabako Foru Ogasunaren betebeharrak azkentzeko, foru arau honen II. tituluaren eta hura garatzeko xedapenetan xedatutakoaren arabera egingo da.

**33. artikulua. Eskumenak**

1. Ezein auzitegik eta administrazio agintarik ezin izango dio fidantzarik, gordailurik edo kauziorik eskatu Arabako Foru Ogasunari, ez betearaztea erabaki, ez eta foru ondarezko ondasun eta eskubideen aurkako enbargo agindurik eman ere, zerbitzu publiko bati edo funtzio publiko bati materialki lotuta daudenean, etekinak edo besterentzearen emaitza lege hainbat helburutara lotuta daudenean, edo merkataritzako foru sozietateen kapitala ordezkatzeko duten baloreak edo tituluak direnean, baldin eta politika publikoak gauzatu edo interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ematen badituzte.

2. Arabako Foru Ogasunaren kargurako betebeharrak zehazten dituzten ebazpen judizialak betetzea arloaren arabera eskumena duen administrazio organoari dagokio, hargatik betearazteko beste modalitate batzuk eskatzea eragotzi gabe, hala badagokio, lege eta foru arauen arabera.

3. Betearazteaz arduratzen den administrazio organoak dagokion kredituaren kargura ordaintzea erabakiko du, dagokion aurrekontuaren moduan eta mugekin. Ordainketa egiteko aurrekontua aldatu behar bada, ebazpen judiziala jakinarazi eta hurrengo hiru hilabeteetan amaitu beharko da dagokion prozedura.

**34. artikulua. Betebeharren berandutze korrituak**

1. Arabako Foru Ogasunak ezarritako epeetan ordaintzen ez dituen zenbatekoek 19. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako berandutze korrituak sortuko dituzte, mugaegunaren biharamunetik ordainketa proposamena erabakitzen den egunera arte.

2. Ordaintzeko epea, berariazko arau batek bestelakorik xedatzen ez badu, hartzekodunarekin alde aurretik adostutakoa izango da, edo betebeharra aitortu edo lehen ebazpen judiziala jakinarazi eta ondoz ondoko hurrengo hiru hilabeteetako.

3. Zergen, administrazio kontratazioaren, nahitaezko desjabetzearen eta dirulaguntzen arloan, berariazko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

**35. artikulua. Arabako Foru Ogasunaren betebeharren preskripzioa**

1. Foru arauak edo lege bereziek ezarritakoa salbu, bost urteren buruan preskribatuko dute:

a) Arabako Foru Ogasunak betekizunak beteta eta egiaztagiriak aurkeztuta eskatu ez duen betebeharrak oro aitortzeko edo likidatzeko eskubidea. Betebeharrak eragin zuen zerbitzua edo preskripzioa amaitu zen egunetik edo eskubidea gauzatu ahal izan zen egunetik zenbatuko da epea.

b) Arabako Foru Ogasunari dagoeneko aitortuta edo likidatuta dauden betebeharrak ordain ditzala eskatzeko eskubidea, bidezko hartzekodunek edo horien eskubidedunek galdatzen ez badute. Betebeharraren aitortpena edo likidazioa jakinarazten den egunetik aurrera zenbatuko da epea.

2. Foru arauen edo lege berezien alde adierazitako salbuespenarekin, preskripzioa Kode Zibilaren xedapenen arabera etengo da.

3. Arabako Foru Ogasunaren kargurako betebeharrak preskribatzen direnean baja eman beharko zaie dagozkien kontuetan, dagozkien espedientea izapidetu ondoren.

**II. TITULUA. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN AURREKONTU OROKORRAK****I. KAPITULUA. AURREKONTU PROGRAMAZIOAREN ETA KUDEAKETAREN PRINTZIOAK****36. artikulua. Aurrekontu programazioaren printzipioak eta arauak**

1. Aurrekontu programazioa honako printzipio hauen arabera arautuko da: aurrekontu egonkortasuna, finantza jasagarritasuna, urte aniztasuna, gardentasuna eta efizientzia baliabide publikoen esleipenean eta erabileran.

2. Foru sektore publikoa osatzen duten entitateek gastu publikoei eragiten dieten foru xedapenek, prestatzeko eta onartzeko fasean daudenean, administrazio egintzek, kontratuek, hitzarmenek eta beste edozein jarduketek haien eraginak eta ondorioak baloratu behar dituzte, eta aurrekontu baliabideen mende jarri.

**37. artikulua. Aurrekontu kudeaketaren printzipioak**

Foru sektore publikoaren kudeaketa Batzar Nagusiek onartutako urteko aurrekontuaren araubidearen mende dago, eta honako printzipio hauen mende:

a) Unibertsaltasun printzipioa: Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan likidatzea aurrekusten diren eskubide guztiak eta bete behar diren betebeharrak sartuko dira.

b) Espezialitate printzipioa: Aurrekontu kredituak ekitaldi bakoitzeko aurrekontua betearazteko foru arauak edo foru arau honen arabera egindako aldaketek baimendutako berariazko helbururako baino ez dira erabiliko.

c) Finantza orekaren printzipioa: Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan finantza orekaren printzipioaren arabera egingo dira, diru sarrera guztiek gastuen zenbatekoa estaltzeko moduan.

d) Osotasun printzipioa: Likidatutako eskubideak eta aitortutako betebeharrak aurrekontuei aplikatuko zaizkie, zenbateko osoagatik, eta debekatuta dago betebeharrei likidatu beharreko edo jada ordaindutako eskubideak murriztuz kasu egitea, salbu eta foru arau batek berariaz baimentzen badu.

Aurreko paragrafoan araututakotik salbuetsita daude auzitegi edo agintaritzak eskudunak bidegabetzat jotzen dituen diru sarreraren itzulketak eta diru sarrera horiek erregulatzen dituen araudian aurreikusitakoak, aurrekontuko diru sarreraren ordainketa kautelaz etetea lortzeko emandako bermeen kostuaren itzulketak, haien bidegabekeriaren adierazpena irmo bihurtu orduko, eta zerga bilketako partaidetzak, aplikatzeko den araudian hala aurreikusita dagoenean.



Letra honen ondorioetarako, zenbateko osotzat hartuko da dagozkion salbuespenak eta hobariak aplikatu ondoren ateratzen dena.

e) Loturarik ezaren printzipioa: Foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen baliabideak bakoitzaren betebeharrak guztiak betetzeko erabiliko dira, salbu eta foru arau bidez haien lotura helburu jakin batzuetarako ezartzen bada.

### **38. artikulua. Urte anitzeko aurrekontu egoerak**

1. Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrek urtero sartzen diren urte anitzeko aurrekontu egoerek osatzen dute foru sektore publikoaren jardueraren programazioa.

2. Urte anitzeko aurrekontu egoerak diru sarreraren egoera batek eta gastuen egoera batek osatuko dituzte, aurrekontua egiten ari den ekitaldiari eta hurrengo hiru ekitaldiei dagokienez.

## II. KAPITULUA. EDUKIA, PRESTAKETA ETA ONARPENA

### *1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK*

#### **39. artikulua. Definizioa**

1. Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrek foru sektore publikoak ekitaldi ekonomiko bakoitzean egin beharreko jarduera ekonomikoaren zuzendaritza programa osatzen duten erabaki multzo integratuaren adierazpen formala eta dokumentala dira, finantza eta kontabilitate terminoetan.

2. Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrek, aldi berean, foru baliabideen kudeaketa kontrolatzeko tresna dira.

#### **40. artikulua. Irismen subjektiboa**

1. Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrek foru sektore publikoa osatzen duen erakunde bakoitzari dagozkionek osatzen dituzte.

2. Honako hauek dira aurreko paragrafoan aipatzen diren aurrekontuak:

- a) Arabako Foru Aldundiaren aurrekontua.
- b) Foru erakunde autonomoen aurrekontuak.
- c) Foru partzuergoen aurrekontuak.
- d) Merkataritzako foru sozietateen aurrekontuak.
- c) Foru fundazioen aurrekontuak.
- f) Foru erakunde publiko enpresarialen aurrekontuak.

#### **41. artikulua. Edukia**

1. 40. artikuluko 2. apartatuko a), b) eta c) letretan aipatzen diren aurrekontuetako bakoitzak honako hauek jaso beharko ditu:

a) Aurrekontuaren memoria, edukiaren eta aurreko aurrekontuen aldean gertatu diren aldaketa nagusien berri ematen duena eta aurrekontua egiteko kontuan hartu diren irizpideak azaltzen dituena.

b) Gastuen egoera, foru sektore publikoa osatzen duten entitateek gehienez onar ditzaketen betebeharrak aurre egiteko kredituek osatua, ezartzen diren mugekin.

c) Diru sarreraren egoera, ekitaldian likidatzea aurreikusten diren eskubide publiko edo pribatuen zenbatespenak osatua.

d) Programaren deskribapena, bai eta horien kudeatzaile arduradun bakoitzak ekitaldian lortzea aurreikusitako helburuen xehetasunak ere.

- e) Langileen eranskin bat, plantillari eta dagozkion ordainsariei buruzkoa.
2. 40. artikuluko 2. apartatuko d), e) eta f) letretan aipatzen diren aurrekontuetako bakoitzak honako hauek jaso beharko ditu:
- a) Aurreikusitako finantza egoera hauek:
    - i. Egoeraren balantzea.
    - ii. Galera eta irabazien kontua.
    - iii. Ondare garbiaren aldaketen egoera, merkataritzako foru sozietateen eta foru erakunde publiko enpresarialen kasuan.
    - iv. Eskudiru fluxuen egoera.
    - v. Ekitaldiko memoria.
  - b) Jarduketa, inbertsio eta finantzaketa programa. Bertan, berariaz jaso beharko dira iraganean lortu nahi ziren helburuak, haiek betetzearen bilakaerarekin batera, bai eta ezarritako helburu berriak ere, posibilitatea eta desiragarritasuna arrazoituta.
  - c) Langileen eranskin bat, plantillari eta dagozkion ordainsariei buruzkoa.
  - d) Administrazio aurrekontu bat, aurreko a) lettran aipatutako finantza egoeren arabera egingo dena, Arabako Foru Aldundiarenarekin homogenea den sailkapen ekonomikoarekin, gutxienez kapitulu mailan.

Administrazio aurrekontuan diru fluxuak sorrarazten dituzten sarrerak eta gastuak bakarrik jaso behar dira, eta kanpoan utzi behar dira funtsen mugimendu errealik ez dakartenak (amortizazioak, hornidurak, emaitzak eta izakinak).

Merkataritza jardueragatik (zordunak, hartzekodunak eta finantza kontuak) sortzea aurreikusten den diruzaintzako gerakina osatzen duten kontu saldoen aldaketa modu orokorrean islatu beharko da aktibo finantzarioen aldaketari buruzko kapituluan, hala nola defizitaren edo superabitaren ondoriozko aurrekontu nibelazioko eragiketak, zeinu positiboarekin edo negatiboarekin, hurrenez hurren, sarreraren aurrekontuan.

#### **42. artikulua. Denbora eremua**

1. Aurrekontu ekitaldia bat etorriko da urte naturalarekin, eta hari egotziko zaizkio:
- a) Aldi horretan likidatutako eskubideak, edozein dela ere horien jatorria.
  - b) Abenduaren amaierara arte aitortutako betebeharrak, betiere aurrekontu ekitaldiaren barruan eta dagozkien kredituen kontura egindako eskuraketei, obrei, zerbitzuei, prestazioei edo gastuei badagozkie.
2. Foru erakunde publiko enpresarialen, merkataritzako foru sozietateen eta foru fundazioen ekitaldia bat etorriko da urte naturalarekin, egindako eragiketen kontabilitate aplikaziorako sortzapen data kontuan hartuta.

#### **43. artikulua. Sarreraren aurrekontua**

1. Sarreraren aurrekontuan sartutako zenbatekoek gutxi gorabeherako balioa izango dute.
2. Dagokien aurrekontua itxi ondoren egiten diren eta helburu jakin batzuei lotuta dauden diru sarrerak dagokien berariazko xedetik askatuta geratuko dira, eta horrek ez du eragotziko sarrera horiek aitortzea eta indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuaren kargura atxikitzea.
3. Zerga eskubideen aurrekontu aurreikuspenetan kontuan hartuko dira Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartutako erabakiak.
4. Aurrekontu kredituen araubide orokorraren finantzaketari aplikatu gabeko diruzaintzako gerakina eta foru arau honetan araututako aldaketa araubidea dagokien aurrekontuko diru sarreraren egoeran agertu ahal izango dira.

**44. artikulua. Gastuen aurrekontua**

Gastuen aurrekontuak honako hauek jasoko ditu, foru arau honetan kasu bakoitzerako zehazten den espezifikotasunarekin:

a) Aurrekontu ekitaldiaren kargura onar daitezkeen betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren ordainketa kredituak.

b) Ondorengo aurrekontu ekitaldian gauzatu beharreko ekintzak finantzatzeko hartu beharreko gastuei aurre egiteko konpromiso kredituak, hori guztia foru arau honetan ezarritako baldintzetan.

**2. ATALA. AURREKONTU EGITURAK****45. artikulua. Oinarrizko egitura**

1. Aurrekontuen egitura, foru arau honetan ezarritakoaren arabera, Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloetan eskumena duen sailak zehaztuko du, foru sektore publikoaren antolaketa, diru sarreren eta gastuen izaera ekonomikoa eta horiekin lortu nahi diren xedeak edo helburuak kontuan hartuta.

2. Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloetan eskumena duen sailak, aurrekontu egiturari dagokionez, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek erabiltzen dituztenekin homogeneoak diren irizpideak hartuko ditu kontuan.

3. Foru arau honen 40. artikuluko 2. apartatuko a), b) eta c) letretan aipatzen diren aurrekontuetako gastuen eta sarreren egoerak hurrengo artikuluetan zehazten diren sailkapenen arabera egituratuko dira.

4. Aurrekontu egiturak indarrean dagoen kontabilitateari buruzko araudia behar bezala aplikatzen lagundu beharko du, eta ekitaldiko emaitzak argi eta modu fidagarrian aurkezteko aukera eman beharko du.

**46. artikulua. Sailkapen ekonomikoa**

1. Sarreren aurrekontuaren sailkapen ekonomikoak eragiketa arruntetarako, kapital eragiketarako eta finantza eragiketarako aurreikuspenak bereiziko ditu.

Eragiketa arrunten sarrerek honako hauek bereiziko dituzte:

- a) Zuzeneko zergak.
- b) Zeharkako zergak.
- c) Tasak, prezio publikoak eta zuzenbide publikoko beste diru sarrera batzuk.
- d) Transferentzia eta dirulaguntza arruntak.
- e) Ondare bidezko diru sarrerek.

Kapital eragiketen sarrerek honako hauek bereiziko dituzte:

- a) Inbertsio errealak besterentzea.
- b) Kapital transferentziak eta dirulaguntzak.

Finantza eragiketen sarrerek honako hauek bereiziko dituzte:

- a) Finantza aktiboak.
- b) Finantza pasiboak.

2. Gastuen aurrekontuaren sailkapen ekonomikoak eragiketa arruntetarako, kapital eragiketarako eta finantza eragiketarako kredituak bereiziko ditu.

Gastu arruntetarako kredituek honako hauek bereiziko dituzte:

- a) Langile gastuak.
- b) Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak.
- c) Finantza gastuak.
- d) Transferentzia eta dirulaguntza arruntak.

Kapital eragiketarako kredituek honako hauek bereiziko dituzte:

- a) Inbertsio errealak.
- b) Kapital transferentziak eta dirulaguntzak.

Finantza eragiketarako kredituek honako hauek bereiziko dituzte:

- a) Finantza aktiboak.
- b) Finantza pasiboak.

#### **47. artikulua. Programen araberako sailkapena, sailkapen funtzionala eta gastuko proiektuen araberako sailkapena**

1. Erakunde publikoak bere jarduerarekin lortu nahi dituen helburuak eta helburu horiek lortzera bideratutako jarduerak egiteko beharrezkoak diren aurrekontuko kredituak bilduko dituzte aurrekontu programek.

2. Programa bakoitzean lortu nahi dituen helburuei buruzko informazioa, beharko diren giza eta finantza baliabideei buruzkoa eta egin beharreko jarduerari eta hauen burutzapenaren arduradunei buruzkoa bildu behar da.

Programa bakoitzak lortu nahi dituen helburuak kuantifikatzeko moduan eta jarraipena egiteko moduan zehaztuko dira. Kuantifikatu ezin diren kasuetan, adierazle egokienak hartuko dira proposatutako helburuen lorpen maila kontrolatzeko.

3. Sailkapen funtzionalak helburuaren arabera bilduko ditu kredituak. Helburu hori kredituak agertzen diren programatik kenduko da, edo, salbuespen gisa, beren izaeratik.

4. Gastu proiektu bat aurrekontu gastuko unitate bat da, erabat identifikagarria, termino orokorretan edo espezifikoetan, zeinaren burutzapena, aurrekontu aplikazio baten edo batzuen kredituen kargura egin eta ekitaldi batera edo gehiagora hedatu, jarraipen eta kontrol indibidualizatua eskatzen duen.

#### **48. artikulua. Sailkapen organikoa**

Sailkapen organikoak gastuak kudeatzen dituzten zentzuei esleitutako kredituak aurkeztuko ditu, zehazten den antolamenduaren zehaztapen mailarekin.

#### **3. ATALA. AURREKONTUAK PRESTATZEA ETA ONARTZEA**

#### **49. artikulua. Gidalerroak**

Foru Gobernu Kontseiluak, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloetan eskumena duen sailak proposatuta, hurrengo ekitaldirako aurrekontu orokorrak egiteko jarraibide ekonomiko eta teknikoak onartuko ditu, aurrekontu proposamenak egiteko irizpideak eta epeak eta errespetatu beharreko mugak ezarriz.

#### **50. artikulua. Prozedura**

1. Aurreko artikuluan aipatutako gidalerroak betez, sail bakoitzak agiri hauek egin eta ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloetan eskumena duen sailari bidaliko dizkio:

a) Sailaren beraren sarreraren eta gastuen aurrekontua proposatzea, bai eta sailari atxikitako foru erakunde autonomo, foru partzuergo eta sektore publiko enpresariala eta fundazionala osatzen duten erakunde bakoitzari dagokiona ere.

b) Aurrekontu bakoitzak indarrean dagoenarekin alderatuta dituen desberdintasun esanguratsuenak azaltzen dituen txostena, bai eta aurrekontu hori egiteko hartutako irizpideak ere.

2. Erakunde autonomoen, foru partzuergoen eta foru sektore publiko enpresarial eta fundazionalako erakundeen aurrekontuan sartuko da, hala badagokio, Arabako Foru Aldunditik eta foru sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeetatik jaso beharreko transferentzia arrunten zenbatekoa, gastuen aurrekontuaren aurreproiektua finantzarioki orekatzeko beharrezkoak direnak. Transferitu eta jaso beharreko zenbatekoek, dagozkien aurrekontuen arabera, berdinak izan beharko dute eta ekitaldiko finantza beharrei erantzun beharko diete.

3. Ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloetan eskumena duen sailak Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontuak Betearazteko Foru Arauaren Proiektua egin eta Foru Gobernu Kontseiluari igorriko dio, onar dezan.

4. Aurrekontua betearazteko foru arauaren proiektuari honako informazio hau erantsi beharko zaio:

a) Aurrekontu orokorren azalpen memoria.

b) Gastu fiskalen memoria.

c) Foru sektore publikoaren aurrekontu bateratua.

d) Indarrean dauden sarreraren eta gastuen aurrekontuen gauzatze mailari buruzko txostena, ahalik eta egunik eguneratuenean emana. Txosten hori ezin izango da, inola ere, irailaren 30a baino lehenagokoa izan.

e) Foru Gobernu Kontseiluak egokitzen jotzen duen beste edozein informazio.

#### **51. artikulua. Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontuak Betearazteko Foru Araua**

1. Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontuak Betearazteko Foru Arauaren xedea 40. artikulua 2. apartatuan zerrendatutako aurrekontu orokorrak onartzea da, eta artikuluek, eranskinek eta sarreraren eta gastuen aurrekontuek osatzen dute, foru arau honen 45., 46., 47. eta 48. artikuluetan ezarritako kredituen zehaztapen mailarekin.

2. Aurreko zenbakian aipatzen diren eranskinak honako hauek dira:

2.1. Inbertsio publikoari buruzko eranskin bat, inbertsio errealetara eta kapitaleko dirulaguntza izendunetara bideratutako gastuko kredituen koadrilen eta udalen arabeko lurralde sailkapena jasoko duena.

2.2. Aurrekontuetan sartutako beste erakunde batzuentzat kudeatutako dirulaguntza izendunen eta inbertsioen eranskin bat.

2.3. Eranskin bat, lotutako finantziarioa duten gastuetarako aurrekontuetan sartutako kredituen gainekoa.

2.4. Aurrekontuetan sartutako kreditu zabalgarriak jasotzen dituen eranskina.

3. Ekitaldi bakoitzeko aurrekontua betearazteko foru arauaren artikuluetan berariaz arautu beharko dira foru sektore publikoko erakundeen zorpetzeko eta bermeak emateko mugak eta baldintzak, bai eta gastu fiskalen aurrekontuaren zenbatekoa ere.

4. Aurrekontua betearazteko foru arauak Foru Ogasunari dagozkion edo harekin zerikusia duten beste gai batzuk ere arautu ahal izango ditu, hala nola langileen ordainsarien araubidea eta aurrekontu orokorretako kredituei eta horien aurrekontu araubideari eta gastu publikoa gauzateari dagozkien hartzeko pasiboen araubidea.

#### **52. artikulua. Batzar Nagusiei aurkeztea**

Ekitaldi bakoitzeko aurrekontua betearazteko foru arauaren proiektua Batzar Nagusietan aurkeztuko da azaroaren 15a baino lehen, onar dadin.

## III. KAPITULUA. AURREKONTUKO KREDITUAK ETA HORIEN ALDAKETAK

## 1. ATALA. AURREKONTUKO KREDITUAK

**53. artikulua. Aurrekontuko kredituak**

1. Aurrekontuko kredituak aurrekontu programetan agertzen diren helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduerak egiteko behar diren gastuen banakako esleipenak dira, eta kasu bakoitzean dagokion sailkapen ekonomikoaren eta programen, funtzioen, proiektuen eta organoen arabera sailkapenaren arabera zehazten dira, foru arau honen 45. 48. artikuluetan xedatutakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe horien betearazpena behar bezala kontabilizatzeko beharrezkoak diren banakatzeak.

2. Aurrekontuko kredituak honela banatzen dira: ordainketa kredituak eta konpromiso kredituak. Lehenengoak oraingo ekitaldiari dagozkionak dira, eta konpromiso kredituak, berriz, baimendutakoaren ondorengo ekitaldiei dagozkienak.

3. Aurrekontuko kredituek onespenera aurrekontu ekitaldian konprometitu daitezkeen gastuak eta aurreko ekitaldietan behar bezala konprometitutakoak finantzatzen dituzte.

4. Aurrekontuko kredituak programen ardura duten unitate kudeatzaileen eskura daude, eta aurrekontuetan onartu ziren helburuak betetzeko erabiliko dira, foru arau honen arabera onartutako aldaketak alde batera utzi gabe.

**54. artikulua. Lotutako finantzazioa duten gastuetarako kredituak**

Lotutako finantzazioa duten gastuetarako kredituak aurrekontuko gastuetarako dira, osorik edo zati batean aurrekontu baliabide zehatzekin finantzatzen direnak; gastua egin ezean, ezingo dira horiek jaso, edo, jaso izan balira, horiek eman zituzten eragileei itzuli beharko zaizkie.

**55. artikulua. Ordainketa kredituak foru sektore publiko administratiboan**

1. Foru sektore publiko administratiboko erakundeen aurrekontuetako gastuen egoeretan sartutako ordainketa kredituek izaera mugatzailea izango dute, eta ezingo da konpromisorik hartu, ezta gasturik ordaindu ere, haien zenbatekoaz harago. Halakotzat hartuko da kreditu horretarako hasieran onartutako zenbatekoa, edo, hala badagokio, foru arau honetan aurreikusitakoaren arabera aldatutako zenbatekoa.

2. Foru arau honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, sailkapen organiko, funtzional edo ekonomikoko edo programen edo proiektuen arabera sailkapeneko kredituetarako gastu muga bateratua ezartzea da lotura. Lotura mailak, oro har, honako hauek dira:

2.1. Kapitulu maila, langile gastuei dagozkien kredituetan.

2.2. Programa eta kapitulu maila ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuetan, finantza gastuetan eta finantza pasiboetan.

2.3. Programa eta artikulua maila transferentzia eta dirulaguntza arrunteei eta kapital transferentzia eta dirulaguntzei, inbertsio errealei eta finantza aktiboei dagozkien gastuetan.

3. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, hauek izaera mugatzailea izango dute onartzen diren desagregazio mailarekin:

a) Konpromiso kredituei dagozkien aurrekontuko kredituak.

b) Zabalgarritzat jotako kredituak.

c) Ekitaldian emandako kreditu gehigarriak.

d) Foru sektore publikoa osatzen duten erakundeei transferentziak egiteko kredituak.

e) Dirulaguntza izendunei dagozkien kredituak.

f) Aurreko ekitaldietatik datozen kreditu txertatuak.

g) Aurreko ekitaldietan konprometitutako gastuetarako kredituak.

h) Izaera, garrantzi edo xede berezia dutelako, ekitaldi bakoitzeko aurrekontua betearazteko foru arauan berariaz zehazten direnak.

4. Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duten foru arauetan xedatutakoa aplikatetik eratorritako aurrekontuko kredituak lotesleak izango dira elkarren artean.

5. Lotutako finantziarioa duen gastu berari dagozkion aurrekontuko kredituak lotesleak izango dira.

6. Lotura mailen barruan gastuak behar bezala egozteko beharrezkoak diren aurrekontu partidak sortu ahal izango dira.

#### **56. artikulua. Ordainketa kredituak foru sektore publiko enpresarial eta fundazionalen**

1. Foru sektore publiko enpresarial eta fundazionalerako erakundeen aurrekontuetan sartutako ordainketa kredituak gutxi gorabeherakoak izango dira, eta dagozkion erakundeak aurrekontu ekitaldian bere jardueraren garapenari buruz dituen aurreikuspenak jasoko dira.

2. Aurreko zenbakian xedatutakotik salbuetsita egongo dira transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapital transferentzia eta dirulaguntzetarako ordainketa kredituak, horiek izaera mugatzailea izango baitute.

#### **57. artikulua. Kreditu orokorra**

1. Arabako Foru Aldundiaren eta foru erakunde autonomoen aurrekontuko gastuen egoeraren barruan "Kreditu orokorra" programa sartu ahal izango da, beste ordainketa kreditu batzuen zuzkiduretako eskasiei erantzuteko edo zuzkidurarik ez duten beharrrizan berriei aurre egiteko, bai eta zabalgarri gisa kalifikatutako kredituak finantzatzeko ere.

2. "Kreditu orokorra" programaren zuzkidurak, ekitaldiko une bakoitzean, ez du gaindituko dagozkion aurrekontuko ordainketa kredituen zenbateko osoaren ehuneko bosta.

3. Ezin izango da zuzenean baimendu "Kreditu orokorra" programako zuzkiduren aurkako gasturik.

#### **58. artikulua. Kreditu zabalgarriak**

1. Zabalgarritzat joko dira ekitaldi bakoitzeko aurrekontua betearazteko foru arauak ezarritako mugekin handitu daitezkeen ordainketa kredituak, aurrekontuetako gastuen egoeretan halakotzat agertzen badira.

2. Nolanahi ere, hauek kreditu zabalgarritzat hartuko dira, nahiz eta dagozkien aurrekontuetako gastuen egoeretan berariaz hala ez agertu:

a) Langileen nahitaezko gizarte aurreikuspeneko araubideari dagozkion kotizazioetarako ordainketa kredituak, kotizazio araubidean izandako aldaketen ondorioz kasu bakoitzean aplikatzekoak diren xedapenen arabera aitortu eta likidatzen diren betebeharren ondoriozko zenbatekoan.

b) Ekonomia Itunak, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko Harremanak arautzen dituen Legeak, Udal Finantzaketarako Foru Funtsak eta itundu gabeko zergetan Arabako Udalen Partaidetzak eragindako gastuei dagozkien ordainketa kredituak.

c) Finantza gastuei eta finantza pasiboari dagozkien ordainketa kredituak.

d) Derrigorrezko gizarte prestazioei dagozkien ordainketa kredituak.

3. Kreditu zabalgarrien gehikuntzak foru arau honetan aurreikusitako kreditu aldaketen araubidearen bidez finantzatuko dira.



**59. artikulua. Konpromiso kredituak**

1. Konpromiso kredituen egoera horiek baimentzen diren ekitaldiaren ondorengo ekitaldietara zabaldu behar diren gastuen multzoak osatzen du.

Konpromiso kredituen egoeran sartzen dira aurrekontu ekitaldian konprometitu daitezkeen etorkizuneko ekitaldiei dagozkien gastuak eta aurreko ekitaldietan konprometitu zirenak.

2. Foru sektore publiko enpresarial eta fundazionala osatzen duten erakundeen aurrekontuetan, konpromiso kredituen egoera kapital eragiketei dagozkienak jasotzera mugatuko da.

3. Konpromiso kredituen egoerak, haietako bakoitzaren zenbateko osoa, urterokoak eta gauzatzeko aurreikusitako ekitaldiak jasoko ditu.

4. Konpromiso kredituen egoeran ez dira sartuko langileei, finantza kargei, zorpetzearen ondoriozko amortizazioei, ondasunen errentamenduari edo izaera iraunkor eta segidako traktuari dagozkien gastuak.

5. Konpromiso kredituak gehienez bost ekitalditan aplikatu ahal izango dira.

Ekitaldi bakoitzari egotzitako gastuak ezin izango du gainditu kalkuluaren oinarriari ehuneko hauek aplikatuta ateratzen den zenbatekoa: lehen ekitaldian, ehuneko 70; bigarren ekitaldian, ehuneko 60; eta hirugarren, laugarren eta bosgarren ekitaldietan, ehuneko 50.

Muga horiek kalkulatzeko oinarria dagokion kapituluaren hasierako kredituari dagokiona izango da.

6. Foru Gobernu Kontseiluak urteka aldatu eta banatu ahal izango ditu onartutako konpromiso kredituak, gastuaren beharrak hala eskatzen duenean. Era berean, hasieran konpromiso krediturik esleitu ez zaien ordainketa kredituak birbanatu ahal izango ditu, baldin eta gauzatzean izandako atzerapenengatik aurrekontu ekitaldi hartan aurreikusitako helburua lortu ezin bada.

Dagokion birbanaketaren ondoriozko soberako kredituak berrerabili ahal izango dira ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak zehaztutako moduan.

7. Foru Gobernu Kontseiluak konpromiso kredituen egoera handitu ahal izango du, kreditu berriak onartuz edo baimendutakoen zenbatekoa handituz, ekitaldiko aurrekontua betearazteko foru arauak ezartzen duen mugaraino.

Batzar Nagusiei dagokie konpromiso kredituen egoera handitzea, kreditu berriak onartuz edo baimendutakoen zenbatekoa handituz, aurreko zenbakian aurreikusitako muga gainditzen denean.

8. Ekarpinak edo ekarpen konpromiso irmoak hurrengo ekitaldietara hedatzen badira, Foru Gobernu Kontseiluak kasuan kasuko konpromiso kredituak sortzeko baimena eman ahal izango du. Kreditu horiek ez dira zenbatuko finantzatutako gastuaren zatiagatik aurreko zenbakian aurreikusitako mugaren ondorioetarako.

9. Konpromiso kredituak egokiro eta banaka kontabilizatuko dira

**2. ATALA. AURREKONTU ALDAKETAK****60. artikulua. Hasierako kredituen aldaketak**

1. Foru sektore publikok administratiboko erakundeen aurrekontuak osatzen dituzten gastuen eta sarreren egoeretan jasotako kredituen zenbatekoa eta helburua ekitaldian zehar aldatu ahalko dira, hurrengo artikuluetan ezarritako muga barruan eta prozeduraren arabera.

2. Aurrekontuetan jasotako gastuen eta sarreren egoeretako aldaketak bi motatakoak izan daitezke:

2.1. Gastuen egoeraren zenbateko osoari eragiten ez diotenak, kredituen transferentzien araubidera egokituko direnak.

2.2. Gastuen eta sarreraren egoeren zenbateko globalari eragiten diotenak, honako araubide hauei lotuko zaizkienak:

- a) Kredituak gaitzekoa.
- b) Kredituak txertatzekoa.
- c) Ezeztatzeagatiko bajak ematekoa.
- d) Kreditu gehigarrietakoa.

3. Aldaketa proposamen orok berariaz adierazi beharko ditu eragindako kredituak, hori justifikatzen duten arrazoiak eta gastuen periodifikazioan izandako aldaketak.

Proposamenak, gainera, egin beharreko ekintzetan eta lortu beharreko helburuetan izango duen eragina adierazi beharko du, dagozkien gastu programak gauzatzean, eta, hala badagokio, dagozkien adierazleen kuantifikazioa eta periodifikazioa eguneratuko ditu.

4. Ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak beharrezko egokitzapen teknikoak egin ahal izango ditu kontabilitate egozpen egokia lortzeko administrazio berrantolaketen, errakuntza materialen, egitezko errakuntza materialen edo aritmetikoen kasuetan, bai eta gastu eta sarrera kontzeptuen egozpen desegokien kasuetan ere, Kontu Planaren arabera.

5. Arabako Foru Aldundiak Estatutik edo Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideetatik datozen eskumen edo zerbitzu berriak hartzen baditu, hortik eratorritako betebeharrak eta dagozkion eskubide ekonomikoak betetzeko beharrezkoak diren kredituak hornitu beharko ditu.

Arabako Foru Aldundiak transferentzia hori gauzatzen den urteko Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorra onartu ondoren adostutako eskumenak edo zerbitzuak lagatzen baditu, kasu bakoitzean dagozkion gastuen eta sarreraren egoerak aldatuko dira.

Ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak beharrezko egokitzapen teknikoak egin ahaliko ditu eskumenak edo zerbitzuak bereganatzen edo lagatzen diren kasuetan.

#### **61. artikulua. Kredituen transferentziak**

Kreditu transferentziaz hartuko da gastuen egoeraren aldaketa, baldin eta, haren zenbateko osoa aldatu gabe, kreditu baten zenbateko osoa edo partziala hainbat lotura mailari dagozkien aurrekontu partiden artean eramaten badu.

#### **62. artikulua. Ordainketa kredituen transferentziak**

1. Transferentziak honela egin ahaliko dira:

- a) Eragiketa arruntetarako kredituen artean.
- b) Kapital eta finantza eragiketarako kredituen artean.
- c) Eragiketa arruntetarako kredituetatik kapital eta finantza eragiketarako kredituetara.
- d) Kapital eta finantza eragiketarako kredituetatik eragiketa arruntetarako kredituetara, betiere inbertsio berriak martxan jartzeko erabiltzen badira.

2. Ordainketa kredituen transferentziek honako arau hauek bete beharko dituzte:

2.1. Transferitu beharreko zenbatekoak soberako kredituei dagozkie, programatutako gastuaren eta dagokion programaren helburuen arabera.

2.2. Ez dute eraginik izango ekitaldian sortutako kreditu gehigarrietan, dagokion kreditu gehigarria onartzeko xedapenean kontrakoa ezartzen denean izan ezik.

2.3. Zabalgarritzat jotako kredituak gutxitu ahal izango dituzte, kalifikazio hori galdua.

2.4. Ez dute eraginik izango txertatutako kredituetan.

2.5. Ez dituzte gutxituko transferentzia araubidearen arabera gehitutako ordainketa kredituak, ez eta foru arau honen 59. artikulua 7. apartatua xedatutakoaren arabera dagokion konpromiso kreditua handitu zaien ordainketa kredituak ere.

2.6. Ez dute ekarriko beste transferentzia batzuen ondorioz gutxitu diren kredituen gehikuntzarik.

3. Aurreko 1. paragrafoko d) letran eta 2. paragrafoan ezarritako mugek ez dute eraginik izango kreditu transferentzietan, baldin eta:

3.1. Estatuari kupoa ordaintzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoari eta Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei tributuetan parte hartzeagatik egiten zaizkien ekarpenetarako zuzkiduretan egiten badira.

3.2. Gastu finantzarioetara eta pasibo finantzarioetara bideratutako kredituen artean egiten badira.

3.3. Foru sektore publikoa osatzen duten erakundeentzako transferentzietarako zuzkiduretan egiten badira.

3.4. "Kreditu globala" programari eragiten badiote.

3.5. Hondamen publikoek edo salbuespenezko antzeko beste kasu batzuek eragindako gastuei aurre egiteko kreditu gehigarrien artean gertatzen badira.

4. Langile gastuei dagokien kapitulari dagozkion ordainketa kredituak sorburu dituzten kreditu transferentziek kapitulu bera edo kreditu orokorra baino ezin izango dute izan jomuga.

5. Transferentzien araubidean oinarrituta, gastuen egoeretan jasota ez dauden programa berriak hornitzeko baimena eman ahalko da, baita programak elkartzeko ere.

Programak elkartzea honako hau izango da: beste programa batean edo batzuetan jasotako aurrekontu kreditu guztiak lehendik dagoen programa batera aldatzea, horretarako hasieran ezarritako gastuaren jomugari eutsiz.

Programa berriak sortu edota programak elkartuz gero, Arabako Foru Aldundiak Batzar Nagusiei jakinarazi beharko die, horretarako baimena eman eta hurrengo hilabetearen barruan.

6. Konpromiso kredituei dagozkien ordainketa kredituak gainerako ordainketa kredituen transferentzien araubideari berari lotuta egongo dira.

Transferentziek ordainketa kreditua gutxitzea badakarte, hornituta zegoen zenbateko osoari eraginez, ordainketa kreditua parte zen konpromiso kreditua automatikoki baliogabetuko da, 74. artikulua 1. apartatua adierazitako eragiketak gauzatu direnean izan ezik.

### **63. artikulua. Konpromiso kredituen transferentziak**

Konpromiso kredituen transferentziek honako muga hauek izango dituzte:

a) Ez dituzte gutxituko ekitaldian handitu diren konpromiso kredituak.

b) Ez dituzte handituko ekitaldian gutxitu diren konpromiso kredituak.

### **64. artikulua. Kredituen transferentziak baimentzeko eskumena duten organoak**

1. Foru Gobernu Kontseiluari dagokio kredituen transferentzia hauek baimentzea:

1.1. Konpromiso kredituei eragiten dietenak.

1.2. Dirulaguntza izendun bat osorik edo zati batean gutxitzearen ondoriozkoak.

1.3. Aurrekontu programen artean egiten direnak, baldin eta horien zenbatekoa ekitaldi bakoitzeko aurrekontua betearazteko foru arauak ezartzen duena baino handiagoa bada.

1.4. Kreditu orokorrari eragiten diotenak.

2. Hainbat sailerako gastu programei eragiten dieten ordainketa kredituen transferentzien proposamenak, 1. apartatuko 1.3. zenbakian adierazitako zenbatekoa gainditzen ez badute, Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloetan eskumena duen sailak onartuko ditu.

Arabako Foru Aldundiko sail, foru erakunde autonomo edo foru partzuergo beraren hainbat gastu programari eragiten dieten ordainketa kredituen transferentzien proposamenak, 1. apartatuko 1.3. zenbakian adierazitako zenbatekoa gainditzen ez badute, horien kudeaketaren ardura duen Arabako Foru Aldundiko sailak onartuko ditu, edo, foru erakunde autonomoen edo foru partzuergoen kasuan, haiek atxikita dauden sailak.

3. Aurrekontu programa bereko ordainketa kredituen artean egiten diren transferentziak hura kudeatzeko ardura duen Arabako Foru Aldundiko sailak edo dagokion foru erakunde autonomoa edo foru partzuergoa atxikita dagoen sailak onartuko ditu.

#### **65. artikulua. Kreditu gaikuntzak**

1. Ekitaldian benetan lortutako sarrerek, aurrekontuko sarreraren egoeretan aurreikusi ez bada edo bertan aurreikusitakoa gainditzen badute, ordainketa kreditua sortu ahalko dute dagokion gastuen egoeran, betiere aurrekontua finantzatzeko sarrera maila egokia ziurtatzen bada.

2. Zehazki, ordainketa kreditu berria edo programa berria sortu edo lehendik daudenak handitu ditzaketen sarrerak izango dira honako eragiketaren ondoriozkoak:

2.1. Administrazio publikoen edo pertsona natural edo juridikoen ekarpenak, Arabako Foru Aldundiarekin edo haren foru erakunde autonomoen edo foru partzuergoren batekin batera finantzatzeko gastu horiek, beren izaera dela eta, haien xede edo helburuetan sartuta badaude.

2.2. Ondare ondasunak besterentzea.

2.3. Zerbitzuak ematea.

2.4. Maileguak itzultzea.

2.5. Ekitaldi itxiei dagozkien ordaindutako dirulaguntzak eta ordainketa bidegabeak itzultzeagatik sarrerak.

2.6. Estatuaren edo beste erakunde publiko batzuen aurrekontu orokorren kargura jasotzen diren eta pertsona edo erakunde pribatuek ematen dituzten beste ekarpen batzuk.

2.7. Beste edozein sarrera mota.

3. Diruzaintzako gerakinak kreditu gaikuntzak eragin ditzake.

4. 2. apartatuko 2.1 eta 2.6 zenbakietan jasotako kasuetan, ekarpenak egiteko eskubidearen edo konpromiso irmoaren aitortzearen forma eguingo da, hau da, edozein erakunde edo pertsona publiko edo pribatuk, Arabako Foru Aldundiarekin edo haren foru erakunde autonomoekin edo foru partzuergoekin egindako akordio edo itun baten bidez, gastu bat osorik edo zati batean modu irmoan edo baldintzatuan finantzatzeko betebeharra hartzen duen egintza. Horretarako, gaitutako kreditu zehatzak erabili beharko dira.

Gainerako kasuetan, gaikuntzak sortuko dira eskubideak benetan biltzen direnean, eta gaitu beharreko zenbatekoak benetan sartutako zenbatekoa izango du muga.

5. 2. apartatuko 2.1 eta 2.6 zenbakietan aurreikusitako kasuetan, gastuen aurrekontuan batera finantzatzeko jardueraren egiteko nahikoa ordainketa kreditu aurreikusten bada, jasotako sarrerek ez dute kreditua gaitzea ekarriko.

6. Sarrerak ibilgetua besterentzetik edo maileguak itzultzetik datozenean, gaikuntzak kapital edo finantza eragiketaren finantzatzeko erabili beharko dira.

Sarrerak ondasun higigarriak saltzetik edo zerbitzuak ematek datozenean, besterendutako ondasunak eskuratzegatik edo zerbitzua emateagatik sortutako gastuen izaera bereko gastuak estaltzeko kredituetan baino ez dira egingo gaikuntzak.

7. Ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak proposatuta, Foru Gobernu Kontseilua izango da gaitzeko organo eskuduna, betiere ekitaldiko aurrekontua beteazteko foru arauak ezarritako zenbatekoa gainditzen ez bada; kasu horretan, organo eskuduna Batzar Nagusiak izango dira.

Arestikoa gorabehera, 2. apartatuko 2.1 eta 2.6 zenbakietan aurreikusitako kasuetan, Foru Gobernu Kontseiluak gaitzeko eskumena izango du beti.

8. 2. apartatuko 2.1 eta 2.6 zenbakietan jasotako kasuetan, eskubidearen aitortzen formalak edo ekarpen konpromiso irmoak ondorengo ekitaldiei eragiten badie, konpromiso kredituak sortu ahal izango ditu dagokion gastuen egoeran.

9. Gastuen aurrekontuan gaikuntzak egin ahal izango dira beste sarrera batzuen kargura, zerga itunduak barne, baldin eta sarreren aurrekontua betearazteak aukera ematen badu ekitaldiaren amaieran esleitutako hasierako aurreikuspenak gainditu egingo direla aurreikusteko, betiere helburu hauek badituzte:

a) Estatuari kupoa ordaintzea, Euskal Autonomia Erkidegoari ekarpena egitea edo Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundeei ekarpena egitea zerga itunduen bilketan duten partaidetzagatik.

b) Interesak ordaintzea, nagusia amortizatzea edo zorpetzearen ondoriozko beste gastu batzuk.

#### **66. artikulua. Kreditu gehigarriak**

1. Aurrekontuaren kargura hurrengo ekitaldira arte atzeratu ezin den gasturen bat egin behar denean, horretarako krediturik ez badago, edo kreditua nahikoa ez bada, behin foru arau honetan baimendutako aldaketak agortuta, Arabako Foru Aldundiak, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak txostena egin ondoren, kreditu gehigarria sortzeko foru arauaren proiektua igorriko die Batzar Nagusiei.

Foru arauaren proiektuari memoria ekonomiko bat erantsiko zaio, proposatzen den finantzaketa iturriari buruzko informazio zehatza jasoko duena.

2. Salbuespen gisa, Foru Gobernu Kontseiluak, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak proposatuta, diruzaintzako aurrerakinak baimendu ahalko ditu gastu geroraezinei aurre egiteko, proposatutako kredituaren ehuneko 20ko mugarekin, kreditu gehigarria sortzeko foru arauaren proiektua izapidetzen hasi ondoren. Arabako Foru Aldundiak Batzar Nagusietara bidaliko du proiektu hori aldi berean.

3. Arabako Foru Aldundiaren berehalako jarduna eskatzen duten hondamen publikoen edo salbuespenezko antzeko kasuen kasuan, Foru Gobernu Kontseiluak, interes orokorra zainduz, egoera horiei aurre egiteko beharrezkoak diren kreditu gehigarriak baimendu ahalko ditu, eta hartutako premiazko jarduketan berri emango die Batzar Nagusiei berehala, hala badagokio baliozkotzeko.

4. Batzar Nagusiek kreditu gehigarria baimentzen ez badute, aurreko 2. eta 3. apartatuen arabera egindako gastuak kasuan kasuko sailaren kredituen kontura edota Foru Gobernu Kontseiluak zehazten dituen aurrekontu kredituen kontura kitatuko dira.

#### **67. artikulua. Kreditu txertatzeak**

1. Ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak aurreko ekitaldiko aurrekontuetako gastuen egoeretan sartutako ordainketa kredituak txertatu ahalko ditu administrazioko foru sektore publikoa osatzen duten

erakundeen aurrekontuetan, baldin eta betebeharrak aitortuak betetzeari lotuta ez badaude eta honako kasu hauetakoren bati badagozkio:

1.1. Aurreko ekitaldian egindako gastu erabilerak babesten dituzten kredituak, arrazoi justifikatuengatik, haientzat betebeharra hartzerik egon ez bada.

1.2. Kreditu gehigarriak eta aurreko ekitaldiko azken hiruhilekoan gaitutako kredituak.

1.3. Eragindako eskubideen benetako bilketaren arabera baimendutako kredituak, baimentze fasean daudenak.

1.4. Txertatzea beharrezkotzat jotzen den beste edozein kreditu mota.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera txertatutako kredituak kasu bakoitzean emakida, baimena eta konpromisoa eragin zuten gastu berberei aplikatu beharko zaizkie.

Kreditua txertatu den ekitaldian betebeharra aitortu ez bada, kreditu horiek deuseztatu egingo dira, baina ez da ondoz ondoko txertatzerik egongo, Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duten foru arauetan xedatutakoa aplikatzearen ondoriozko kredituak izan ezik.

3. Kredituak txertatzeko, finantza baliabide nahikoak egon beharko dira, eta, horretarako, txertatutako kredituen eta horien finantzaketaren arteko oreka bermatu beharko da, eta ezin izango da defizitik sortu.

4. Kredituak txertatzeko, hurrengo ekitaldiko aurrekontuetako gastuen egoeretan sartuta, betearaztean, txertatzen diren kredituak jasotzen zizutuztenen jarraipena diren programetan integratuko dira.

5. Onartu ziren ekitaldian konprometitu ez diren ordainketa kredituak badira, eta konpromiso kredituei buruzkoak badira, azken horiek automatikoki txertatuko dira, salbu eta txertatu beharreko ekitaldiko aurrekontuan agertzen badira.

#### **68. artikulua. Deuseztatze batak**

1. Hauxe da deuseztatze batak: gastuen aurrekontuan aldaketa egitea eta horren ondorioz aurrekontuko partida bati esleitutako kreditua erabat desagertzea edo zati bat murriztea.

2. Batak eman dakioke gastuen aurrekontuko edozein kredituri, deuseztatzeagatik, kreditu erabilgarriaren saldoari dagokion zenbatekoan, betiere zuzkidura hori murrizgarri edo deuseztagarritzat jotzen bada, eta ez bada eragozten aurrekontuan jasotako jarduera egitea.

3. Kredituen batak eragin ahalko dute hauek:

a) Diruzaintzako gerakin positiboen finantzaketak.

b) Kreditu gehigarrien finantzaketak.

c) Lotutako finantziarioa duten gastuen doikuntzek.

4. Aurrekontuan aurreikusitako aurrekontu kredituen deuseztatze batak Foru Gobernu Kontseiluak erabakiko du, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak proposatuta.

### IV. KAPITULUA. FORU SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOKO ERAKUNDEEN AURREKONTUAK KUDEATZEA ETA GAUZATZEA

#### 1. ATALA. KUDEAKETA EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN FUNTZIONAMENDU PRINTZIBIOAK

#### **69. artikulua. Kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren funtzionamendu printzipioak**

1. Foru sektore publiko administratiboa osatzen duten erakundeek beren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa egokituko dute ezarritako helburuak lortzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia betetzera, beren administrazio jardueraren objektibotasuna eta gardentasuna kontuan hartuta.

2. Foru sektore publiko administratiboaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren programazioaren eta gauzapearen xedeak helburuak garatzea eta emaitzen kudeaketa kontrolatzea izango dira, prozedura, zerbitzu eta prestazio publikoak etengabe hobetzen lagunduz, Foru Gobernu Kontseiluak ezarritako gastu politiken eta eskura dauden baliabideen arabera.

3. Foru sektore publiko administratiboa osatzen duten administrazio erakunde eta organoetako titularrek izango dute ezarritako helburuak lortzeko ardura, baliabide publikoen erabilera efizientea sustatuz eta herritarrei kalitatezko zerbitzua emanez.

## 2. ATALA. MEMORIA EKONOMIKOA

### 70. artikulua. Memoria ekonomikoa

Foru arauaren aurreproiektu, zerga premiazko araugintzako foro dekretuen proiektu, eta araugintzako foro dekretuen proiektu orok, uneko ekitaldian nahiz ondorengoetan gastu edo sarrera publikoak ekar baditzake, aurretiazko aurrekari eta azterlanen artean, nahitaez jaso behar du proposamena egiten duen sailak egindako memoria ekonomiko bat, zeinari ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailaren nahitaezko txostena erantsiko baitzaio, xedapen hori hartzeak aurrekontuetan izango dituen ondorioak agerian jarritz.

## 3. ATALA. SARREREN AURREKONTUA KUDEATZEA

### 71. artikulua. Sarrerren aurrekontuaren kudeaketa

1. Sarrerren aurrekontuaren kudeaketa honako fase hauetan egingo da, hurrenez hurren edo aldi berean:

- a) Eskubidea aitortzea.
- b) Eskubidea azkentzea.

2. Eskubidea aitortzea, baliabide espezifikiko bakoitzari aplika dakiokkeen araudiaren arabera, dagokion erakundearen aldeko kreditu bat dagoela adierazten eta kuantifikatzen duen egintza da.

3. Eskubidea honako kasu hauetan azkendu ahalko da:

- a) Eskudirutan, gauzatan edo konpentsazioz kobratzeagatik.
- b) Likidazioa deuseztatzeagatik, preskribatzeagatik, barkatzeagatik edo kaudimengabeziagatik. Arrazoi horiengatik eskubidea azkentzen bada, kontabilizazio bereizia egingo da, eragin duen kasuaren arabera.

4. Sarrerren itzulketak kudeatzean, itzultzeko eskubidearen aitortzea eta itzulketaren ordainketa bereiziko dira. Sarrerren itzulketak ordainketa egiten den aurrekontu ekitaldiari egotziko zaizkio.

### 72. artikulua. Sarrerren kudeaketaren arloko eskumenak

1. Arabako Foru Aldundiko sailen, foru erakunde autonomoen edo foru partzuergoen jarduketari dagozkien sarrera guztiak horien titularra den sailak kudeatuko ditu, edo foru erakunde autonomoko edo foru partzuergoko organo eskudunak, hurrenez hurren.

2. Likidazioaren eskumena foru diputatu bakoitzarena edo foru erakunde autonomoko edo foru partzuergoko organo eskudunarena izango da.

3. Arabako Foru Aldundiaren eremuan, borondatezko aldiko sarrerren bilketa ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailari dagokio, eta, foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen eremuan, organo eskudunei, indarrean dagoen araudiaren arabera.

4. Betearazpen aldiko sarrerren bilketa Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailari dagokio beti.



#### 4. ATALA. GASTUEN AURREKONTUA KUDEATZEA

##### 73. artikulua. Aurrekontuko kredituen egoera

1. Gastuen aurrekontuan kontsignatutako kredituak erabilgarri edo ez erabilgarri gisa agertu ahalko dira.

2. Hasiera batean, gastuetarako kreditu guztiak eskuragarri egoeran egongo dira.

3. Kreditua eskuragarri ez izatea aurrekontu partida bateko kredituaren saldo osoa edo zati bat ibilgetzeko egintzatik eratorzen da, eta aurrekontuaren gauzapenean eta aldaketen araubidean ez erabilgarri adieraziko da.

Hala, ez erabilgarri adierazteak ez du kredituaren deuseztatzea ekarriko, baina erabilgarri ez dagoela adierazitako saldoaren kargura ezingo dira gastu eta transferentzien baimenak adostu, eta zenbatekoa ezingo zaio hurrengo ekitaldiko aurrekontuari aplikatu.

4. Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko partiden zenbatekoa, foru sektore publikok administratiboko gainerako erakundeen aurrekontuak finantzatzera bideratutakoa, erabilgarri ez badago, dagokion aurrekontuan krediturik ez izatea ekarriko du, egindako erabilgarritasunik ezaren zenbateko berean.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera agerian geratzen diren kreditu ez erabilgarriak, foru erakunde hartzaileak finantzaketa handiagoa lortu duela egiaztatzen den heinean askatu ahal izango dira.

5. Foru Gobernu Kontseiluari dagokio kredituen ez erabilgarritasuna adieraztea, bai eta kreditu horiek berriro eskuragarri jartzea ere.

##### 74. artikulua. Gastuen aurrekontuaren kudeaketa

1. Foru sektore publiko administratiboko erakundeen aurrekontuetan esleitutako ordainketa kredituen betearazpenak honako eragiketeta hauek hartzen ditu:

a) Erreserba: Aurrekontu kreditu bat osorik edo zati batean atxikitzeko egintza da.

Erreserbak gastua gauzatzeko prozedura hasten du, eta horrek ez dakar berekin erakundetik kanpoko hirugarrenekin harremanik izatea.

b) Gastuaren baimena. Egintza honen bidez, aldez aurretik erreserbatutako kreditu baten gainean zenbateko zehatz edo gutxi gorabeherakoa duen gastu bat egitea erabakitzen da.

c) Gasturen xedapena. Egintza honen bidez, lege ezarritako izapideak bete ondoren, aldez aurretik baimendutako gastuak egitea erabakitzen da, zenbateko jakin batean. Xedapena hirugarrenentzako garrantzi juridikoa duen egintza bat da, erakundea gastua ezarritako zenbatekoan eta baldintzetan egitearekin lotzen duena.

d) Betebeharraren onarpena. Erakundearen aurka eska daitekeen kreditu bat dagoela aitortzeko egintza da, gastu erreserbatu, baimendu eta xedatu baten ondoriozkoa.

Betebeharrak onartzeko, lehenago organo eskudunari agiri bidez gastua baimendu eta konprometitu zuten administrazio xedapen eta egintzen arabera hartzekodunaren prestazioa edo eskubidea gauzatu dela egiaztatu beharko zaio.

2. Betebeharrak ordainketaren, konpentsazioaren, preskripzioaren edo beste edozein bitartekoren bidez azkentzen dira, foru arau honetan eta aplikatzekoak diren xedapenetan ezarritakoaren arabera.

3. Kontsignatutako konpromiso kredituen betearazpenak barne hartuko ditu 1. apartatuan zehaztutako gastua erreserbatu, baimendu eta xedatzeko eragiketak.

4. Eragiketaren edo gastuaren izaerak hala dakarrenean, egintza bakar batean metatuko dira gauzapan fase zehatzak.

5. Ezingo da konpromisorik hartu, ezta gasturik ordaindu ere, baimendutako zenbatekotik harago; muga hori hausten duten administrazio egintzak eta xedapenak erabat deusezak izango dira, sor daitezkeen erantzukizunei kalterik egin gabe.

Ordainketa kredituak konpromiso kreditu batek dituen betebeharrei buruzkoak direnean, bi kredituen zuzkiduren baturaren zenbateko baliokidea konprometitu ahal izango da.

6. Urte anitzeko obra kontratuetan, prezioaren ordainketa osoaren modalitatean egindakoe-tan izan ezik, adjudikazioaren zenbatekoaren ehuneko 10eko erreserba egingo da. Erreserba hori dagokion kontratutik eratorritako konpromisoak amaitzen diren ekitaldian aplikatuko da.

7. Lotura maila gorabehera, gastuaren kontabilizazioa kasu guztietan aplikatuko zaie dagoz-kien aurrekontu partidei.

8. Aurrekontuan sartutako ordainketa kredituak, aurrekontuko ekitaldiaren azken egunean, ekitaldian zehar aitortutako betebeharrak betetzeari lotuta ez badaude, erabat deuseztatuta geratuko dira, salbu eta foru arau honen 67. artikuluan xedatutakoaren arabera txertatzen badira.

Era berean, aurrekontuko ekitaldiaren azken egunean erabili ez diren konpromiso kredituak deuseztatu egingo dira.

#### **75. artikulua. Gastuen kudeaketaren arloko eskumenak**

1. Arabako Foru Aldundiaren eremuan, ekitaldi bakoitzeko aurrekontua betearazteko foru arauak zehaztuko du zein foru organori dagokion gastuak baimentzea eta xedatzea eta bete-beharrak aitortzea.

2. Foru erakunde autonomoetan eta foru partzuergoetan, beren araudiek eskumen horiek esleitzen dizkieten organoei dagokie betebeharrak baimentzea, xedatzea eta aitortzea.

#### **76. artikulua. Foru sektore publikoaren barne eragiketak**

Sarreraren eta gastuen gauzaperen egoeretatik Arabako Foru Aldundiak foru sektore publikoko gainerako erakundeei beren finantza premien arabera emandako kredituek estali nahi zituzten benetako gastuak gaingiditzen dituztela ondorioztatzen bada, ogasunaren, finantzen eta aurre-kontuen arloan eskumena duen sailak sobera ordaindutako kopuruak itzultzeko eskatu ahal izango dio eragindako erakundeari.

#### **77. artikulua. Frogatu beharreko ordainketak**

1. 74. artikuluko 1. apartatuko d) letran aipatzen diren egiaztagiria aurkeztu gabe gastuei aurre egiteko salbuespenez ematen diren ordainketa aginduak frogatu beharrekoak izango dira, dagozkien aurrekontu kredituei aplikatzea eragotzi gabe.

2. Frogatu beharreko ordainketa aginduak emango dira honako kasu hauetan:

a) Justifikazio agiriak ezin direnean aurkeztu ordainketa proposamena egin baino lehen.

b) Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen saileko titularrak beharrezkotzat jotzen duenean kredituen kudeaketa arintzeko, egokitasun arrazoientatik edo aparteko beste arrazoi batzuentatik, behar bezala arrazoituta.

3. Frogatu beharreko ordainketen kargura, onartutako ordainketa dagokion aurrekontuko ekitaldian egin diren eta galda daitezkeen jarduketan ondoriozko betebeharrak baino ezin izango dira ordaindu.

4. Ordainketa horien hartzailleek frogatu egin beharko dute jasotako funtsen aplikazioa, eta erabili ez direnak diruzaintzari itzuli beharko dizkiote, foru arau honetan aurreikusitako erantzukizun araubideari lotuta.

Lehen aipatutako epeak eta jarduketak, nolana ere, diru laguntza eman eta hurrengo ekitaldiko urtarrilean amaituko dira.

5. Oro har, ezingo dira eman "frogatu beharreko" ordainketa agindu berriak aurrekontu kontzeptu berengatik, oraindik frogatzeko funtsak dituzten hartzaileei.

6. Aurrekontua betearazteko foru arauak ekitaldi bakoitzerako ezarriko du eragiketa bakoitzeko eta frogatu beharreko ordainketa gisa eman ahal izango den gehieneko zenbatekoa.

Horrela zehaztutako gehieneko zenbatekoa ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

- a) Sektore publikoko erakundeak hartzaile dituzten ordainketak.
- b) Nahitaezko desjabetze espedienteetatik eratorritako ordainketak.

7. Aldian behingo edo behin eta berriz egiten diren gastuetarako, justifikatu beharreko funts libratuek kutxa finkoko aurrerakinaren izaera eduki ahalko dute.

Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak erabakiko du funts hornidurak egiteko prozedura eta kutxa finkoko aurrerakinak frogatzeko araubidea.

#### **78. artikulua. Bidegabeko ordainketak eta gainerako itzulketak**

1. Foru arau honen ondorioetarako, bidegabeko ordainketatzat hartzen da errakuntza material, aritmetiko edo egitatezkoa;

a) Ordainketa horri dagokionez administrazioaren aurrean kobratzeko eskubiderik ez duen pertsonaren alde egiten da.

b) Hartzekodunaren eskubidea aitortu zuen egintzan edo dokumentuan kontsignatutako zenbatekoa gainditzen duen zenbatekoan egiten da.

2. Aurrekontuko kredituen kargura behar ez bezala egindako ordainketak itzultzeagatik sarreak lortzen badira, azken horiek ordainketa egiteko unean zituzten baldintza berberetan itzuliko dira, betiere ordainketa eta sarrera aurrekontuko ekitaldi berekoak badira.

3. Sarrera aurreko aurrekontuetan esleitutako kreditu bati badagokio, sarrera gertatu den ekitaldiko sarreraren aurrekontuari aplikatuko zaizkio.

4. Aurreko apartatuetan xedatutakoa aplikatzekoa izango da, halaber, funtsak jaso dituen pertsonak funtsak emateko ezarritako baldintzak ez betetzeagatik edo baldintzak bete izana ez frogatzeagatik jasotako zenbatekoak itzuli behar diren kasuetan.

### V. KAPITULUA. AURREKONTUEN LIKIDAZIOA

#### **79. artikulua. Likidazio datak**

Ekitaldi bakoitzeko aurrekontuak urteko abenduaren 31n kitatuko dira, eskubideen eta betebeharren aitortpenari dagokionez..

#### **80. artikulua. Hondarrak**

1. Urte ekonomikoaren lehen hiruhilekoan, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak hondarrak formulatuko ditu.

2. Gastuen hondar gisa agertuko dira aurreko ekitaldiko azken egunean ordaindu ez diren betebeharrak aitortuak, eta sarreraren hondar gisa, aurreko ekitaldia ixtean kobratzeko zeuden eskubide aitortuak eta likidatuak.

3. Aurrekontuko ekitaldi baten likidaziotik, bai sarreretatik bai gastuetatik lortutako hondarren jarraipen independentea egingo da, erabat amaitu arte.

### VI. KAPITULUA. AURREKONTUEN LUZAPENA

#### **81. artikulua. Aurrekontu orokorren luzapena**

1. Aurrekontua betearazteko foru araua arautu behar duen ekitaldiaren lehen eguna baino lehen onesten ez bada, aurreko ekitaldiko aurrekontuak automatikoki luzatutzat joko dira, berriak onartu eta argitaratu arte.

2. Luzatutako aurrekontuen zuzkiduren zenbatekoa aurreko ekitaldi ekonomikoaren azken eguneko behin betiko kredituei dagozkienak izango dira, hurrengo artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe.

3. Luzapena bukatutakoan joko da behin betiko aurrekontuak urtarrilaren batetik hasita daudela onartuta, eta horko kredituak hasierako kreditutzat hartuko dira.

## **82. artikulua. Luzapenaren araubidea**

1. Aurrekontuen luzapenaldian, luzatu beharreko aurrekontuetan onartutako mugak erresetatu behar dira, aurrekontuko plantillari, abalak emateari eta beste berme batzuk emateari eta zorpetze eragiketak hitzarteari dagokionez.

2. Luzatutako aurrekontuetako kredituen zenbatekoak honako berezitasun hauek izango ditu:

a) Langileen ordainsarietarako kredituak aplikatu beharreko araudiaren arabera eguneratuko dira.

b) Ez dira luzatuko txertaketetan jatorria duten kredituak, Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duten foru arauetan kreditu gaikuntzetan eta kreditu gehigarrietan xedatutakoa aplikatuz datozen kredituak izan ezik.

c) Ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten kapituluko kredituak eta dirulaguntza arruntetara eta kapital dirulaguntzetara bideratutakoak luzatutzat joko dira, baldin eta aurrekontua luzatzen den ekitaldian segida duten programak, jarduerak edo lerroak finantzatzen badituzte.

d) Inbertsio errealean kapituluko kredituak luzatutzat joko dira, baldin eta luzatutako ekitaldian jarraitzen duten jarduketak badira.

e) Foru sektore publikoko erakundeen aldeko transferentzietarako kredituak haien aurrekontuei foru aldundiarentzat aurreikusitako luzapen arau berberak aplikatzearen ondoriozko zenbatekoan kontsignatuko dira.

f) Batzar Nagusien funtzionamendua finantzatzeko aurrekontu zuzkidura haien aurrekontuetan onartutako zenbatekoan kontsignatuko da.

g) Aktibo finantzarioen kapituluan, indarrean dauden akordio edo hitzarmenak aplikatzearen ondorioz nahitaez gauzatu beharreko jarduketetara bideratutako kredituak luzatuko dira.

h) Estatuarentzako kuporako esleitutako kredituak, Euskal Autonomia Erkidegoari egindako ekarpenetarako eta itundutako zergen erakunde banaketaren ondorioz toki-erakundeek egindako transferentzietarako direnak, luzatutako aurrekontuan kontsignatuko dira, aplikatzekoak diren xedapenetatik ateratzen den zenbatekoan.

i) Ekitaldia hasi aurretik baimendutako finantza eragiketetatik eratorritako gastuetarako kredituak luzatu egingo dira, edo, indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, ekitaldi horretan ituntzen direnak, eta haien zuzkidurak dagozkien jaulkipenak arautzen dituzten baldintzetara, mailegu kontratuetara eta gainerako finantza eragiketetara egokituko dira.

4. Luzatutako aurrekontua indarrean jartzen denean, aurretik hartutako urte anitzeko konpromisoei aurre egiteko kontsignaziorik ez badago, edo hori nahikoa ez bada, kreditua aldatu behar da, aipatutako konpromisoei aurrekontu estaldura emateko.

5. Luzapenaldian, aurrekontu aldaketen araubidea foru arau honetan eta luzatutako ekitaldiko aurrekontua betearazteko foru arauan xedatutakoaren arabera arautuko da.

6. Ekitaldi berrirako aurrekontuek luzapen araubidean baimendutako kredituetatik bat ere ez badute, edo zenbateko txikiagoan jasotzen badituzte, dagokion zenbatekoa ukitutako programaren kargura kitatuko da. Hori ezinezkoa bada, sail berearen kredituen kargura. Bestela, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen saileko titularrak ezarriko du zuzkidura hori egiteko prozedura.

7. Nolanahi ere, Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloko eskumena duen sailak jarraibide egokiak eman ahal izango ditu, eta beharrezko jarduketak egin, aurrekontu luzatuek foru arau honen 37. artikuluan jasotako aurrekontu printzipioak betetzen dituztela bermatzeko.

### III. TITULUA. FORU DIRUZAINNTZA ETA FINANTZA KUDEAKETA

#### I. KAPITULUA. FORU DIRUZAINNTZA ETA HAREN KUDEAKETA

##### 83. artikulua. Foru Diruzaintza

Foru Diruzaintza Arabako Foru Aldundiaren eta haren foru erakunde autonomoen finantza baliabide guztiak osatzen dute, bai aurrekontuko eragiketek bai aurrekontuz kanpoko eragiketek sortutako diruak, baloreek edo kredituek.

##### 84. artikulua. Foru Diruzaintzaren kudeaketa

1. Foru Diruzaintzaren kudeaketak eginkizun hauek ditu:

- a) Eskubideak gauzatzea eta betebeharrak ordaintzea.
- b) Aurrekontuko eragiketek eta aurrekontukoak ez direnek sortutako funts eta balore guztiak zentralizatzea.
- c) Betebeharrak unean-unean betetzeko dauden diru baliabideak denboran banatzea.
- d) Diruzaintzako aldi baterako soberakinak errentagarri bihurtzea, likidezia, kaudimen eta segurtasun baldintzak betetzen dituzten inbertsioen bidez.
- e) Finantzaketa iturriak lortzea eta zorpetze eragiketak kudeatzea.
- f) Emandako abalei erantzutea.
- g) Arabako Foru Aldundiaren eta haren foru erakunde autonomoen alde eratutako bermeak zaintzea, gauzatzea eta kudeatzea, foru arau honen 94. artikuluan aurreikusitako moduan.
- h) Agintzen zaizkion beste berme batzuk zaintzea eta kudeatzea.
- i) Arestian zerrendatutakoetatik datozen edo haiei lotuta dauden gainerakoak.

2. Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloko eskumena duen sailak gauzatuko ditu bere diruzaintzaren kudeaketarekin zerikusia duten eskumen guztiak, aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera.

3. Foru erakunde autonomoetako organo eskudunei dagokie erakunde horien diruzaintza kudeatzea, aplikatzekoa zaien araudian ezarritakoaren arabera.

##### 85. artikulua. Urteko finantza plana

1. Ordainketen denbora banaketa egokia lortzeko eta zorpetze beharrak behar bezala baliosteko, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloko eskumena duen sailak, Arabako Foru Aldundiaren kasuan, eta foru erakunde autonomoetako organo eskudunek urteko finantza plan bat egingo dute, eta ordainketa aginduak horretara egokitu beharko dira. Plan horrek egin beharreko kobrantzen aurreikuspen bat ere jasoko du.

2. Urteko finantza planak egiteko, haietan eragina izan dezaketen ordainketei eta kobrantzei buruz egokitzen jotzen diren datu, aurreikuspen eta dokumentazio guztiak bildu ahal izango dira.

3. Urteko finantza planak ekitaldi batean zehar aldatu ahal izango dira, gauzatzeari buruzko datuen edo kobrantzen edo ordainketen aurreikuspenetan izandako aldaketan arabera.

##### 86. artikulua. Ordainketak agintzeko irizpideak

Ordainketak agintzeko eginkizuna duten organoek irizpide objektiboak aplikatuko dituzte ordainketa aginduak ematean, hala nola, hartze data, eragiketaren zenbatekoa eta ordaintzeko epea eta modua, besteak beste.

**87. artikulua. Funtsen egoera**

1. Foru Diruzaintzaren kobrantzak eta ordainketak kontu eta kutxen bidez bideratuko dira.
2. Kutxetan ez dauden funtsak Espainiako Bankuko Erakundearen Erregistroan sartutako kreditu edo finantza erakundeetan gordailutuko dira.

**88. artikulua. Ordainketen antolamendu materiala eta funtsen erabilpena**

1. Ordainketaren antolamendu materiala, hau da, ordainketa egitea, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailaren titularraren eskumena da Arabako Foru Aldundiaren eremuan. Foru erakunde autonomoetan, ordainketaren antolamendu materiala organo eskudunei dagokie, aplikatu beharreko araudiaren arabera.
2. Kontuetan gordailututako funtsak erabiltzeko, aplikatzekoa den araudiak zehazten duen pertsona kopuruak sinatu beharko du, eta pertsona horietako bat, nahitaez, ordainketak materialki antolatzeko ahalmena duena izango da.

**89. artikulua. Kobratzeko eta ordaintzeko bideak**

1. Foru Diruzaintzaren kobrantzak eta ordainketak eskudirutan egin ahal izango dira, txeke, banku transferentzia edo baimendutako beste edozein bitartekoren bidez, bankukoa izan ala ez.
2. Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloko eskumena duen sailak kobrantza edo ordainketa jakin batzuk egiteko kobrantza eta ordainketa bitartekoak erabiltzea mugatu ahal izango du, kasu bakoitzean erabiltzeko baldintza bereziak zehaztuta.

**90. artikulua. Finantza erakundeekiko harremanak**

1. Finantza erakundeek bitartekaritza zerbitzuak eman ahal izango dituzte Foru Diruzaintzaren kobrantza eta ordainketetan, Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloko eskumena duen sailak eta foru erakunde autonomoetan eskumena duten organoek baimena eman ondoren. Baimen hori banakakoa izango da, eta dagozkion kontuak erabiltzeko baldintzak finkatuko ditu.
2. Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloko eskumena duen sailak kontratuak izenpetu ahal izango ditu finantza erakundeekin, Foru Diruzaintzaren funtsak kokatuta dauden kontuen funtzionamendu araubidea zehazteko.

## II. KAPITULUA. AKTIBOKO ERAGIKETAK

**91. artikulua. Aktiboak eskuratzea eta gordailu edo kreditu eragiketak**

Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloko eskumena duen sailak, Foru Diruzaintza hobeto kudeatzeko, baloreak eskuratzea, finantza erakundeekin gordailu edo kreditu eragiketak formalizatzea eta beharrezkotzat jotzen dituen finantza eragiketa guztiak hitzartzea erabaki ahal izango du, finantza merkatuan ondorio horietarako dauden formuletako edozeinen bidez, foru arau honen 84. artikuluan ezarritakoa hobeto betetzeko moduan.

**92. artikulua. Foru sektore publiko enpresariala eta fundazionala osatzen duten erakundearen epe laburreko eta luzeko finantzaketa**

1. Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloko eskumena duen saileko titularrak foru sektore publiko enpresariala eta fundazionala osatzen duten erakundeei urtebete baino gutxiagoko kredituak edo bestelako finantzaketa figurak ematea onartu ahal izango du, betiere finantza egoerak hori justifikatzen badu. Nolanahi ere, eragiketa horiek aurrekontuz kanpokoak izango dira.
2. Era berean, Foru Gobernu Kontseiluak, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak proposatuta, kredituak edo epe luzerako bestelako finantzaketa figurak eman ahal izango dizkie foru sektore publiko enpresariala eta fundazionala osatzen duten erakundeei, ekitaldi bakoitzeko aurrekontua betearazteko foru arauak ezartzen dituen zorpetze mugen barruan. Emakida horiei aplikatu beharreko interes tasa ez da izango ordainketa horrek Arabako Foru Aldundiari eragingo dion finantzaketa kostua baino txikiagoa.

### III. KAPITULUA. ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ETA FORU ERAKUNDE AUTONOMOEN ALDEKO BERMEAK

#### **93. artikulua. Jasotako bermeak**

1. Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailari eta foru erakunde autonomoetako organo eskudunei dagokie berme hauek zaintzea, kudeatzea, gauzatzea eta itzultzea, eratzeko modu hauetako edozein erabili bada: abala, esku-dirutako gordailua, kausio aseguruaren poliza, balore gordailua, kontuko idatzohar edo antzeko beste edozein bidezko balore ibilgetzea .

2. Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak ezarriko ditu bermeen zaintza, kudeaketa, betearazpena eta itzulketa arautzeko prozedurak.

#### **94. artikulua. Gordailuak**

Arabako Foru Aldundiaren eta foru erakunde autonomoen aldeko berme gisa egiten diren eskudiruzko gordailuak foru arau honen 87. artikuluko 1. apartatuan aurreikusitako kontuetan edukiko dira.

### IV. KAPITULUA. ARABAKO FORU SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOAREN ZORPETZEA

#### *1. ATALA. ZORPETZEA*

#### **95. artikulua. Zorpetzea**

1. Arabako Foru Aldundiak zorpetze eragiketak hitzartu ahal izango ditu, zor publikoaren jaulkipenen bidez, kreditu eragiketak edo mailegu eragiketak hitzartuz (modalitate guztietan) edo, oro har, zorpetzeari lotutako beste edozein finantza eragiketaren bidez.

Foru erakunde autonomoek eta foru partzuergoek ezin izango dute zorpetze eragiketarik hitzartu.

2. Zorpetzea honela sailkatzen da: aurrekontukoa, epe luzekoa, eta aurrekontuko kanpoko, epe laburrekoa, helburua aurrekontua gauzatzetik eratorritako betebeharrak finantzatzea edo diruzaintzako aldi baterako premiei erantzutea izan, hurrenez hurren.

3. Zorpetzetik eratorritako edozein motatako gastu eta sarrera finantzarioak Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuan aplikatuko dira, inolako salbuespenik gabe.

#### **96. artikulua. Zorpetzearen ezaugarriak**

Zorpetzea eurotan edo dibisatan izendatu ahal izango da, eta honako ezaugarri hauek izango ditu: epea, interes tasa, ordezkari eta kostu eta arrisku egokiak lortzea ahalbidetzen duen beste edozein.

#### **97. artikulua. Epe luzeko zorpetzea**

1. Aurrekontua betearazteko foru arauak epe luzeko zorpetzearen gehieneko muga onartuko du ekitaldi bakoitzerako.

2. Aurreko apartatuan adierazitakoa gorabehera, inguruabar bereziengatik beharrezkoa denean, Batzar Nagusiek epe luzerako zorpetzea onartu ahal izango dute, ekitaldi bakoitzeko aurrekontua gauzatzeko foru arauan ezarritako mugatik gorakoa, zenbatekoa eta helburua zehaztuta.

3. Arabako Foru Aldundiaren epe luzeko zorpetzearen ezaugarriak baimentzea, formalizatzea eta zehaztea ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailari dagokio.

4. Ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak berritze, birfinantzatze, ordezte eta amortizazio aurreratuko eragiketak egin ahal izango ditu, baita zatika ere, edo zorpetze eragiketen edozein baldintza aldatu ahal izango du.



**98. artikulua. Epe laburreko zorpetzea**

Ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloko eskumena duen sailak zorpetze eragiketak formalizatzea onartu ahalko du, gehienez ere urtebeterako, Foru Diruzaintzaren une bateko zailtasunei aurre egiteko beharrezkoak badira.

**99. artikulua. Zorpetzeari eragiten dioten finantza eragiketa bereziak**

1. Ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak zorpetzearen arriskua edo kostua murrizteko edo dibertsifikatzeko finantza eragiketak hitzartu ahal izango ditu, bai eta finantza kudeaketa egokia egiteko beharrezkoak diren beste batzuk ere.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako eragiketak honako hauek izan daitezke: produktu deribatuak trukaketa finantzario gisa erabiltzea, aukerak, gerokoak edo azpiko aktiboetan oinarritutako beste edozein tresna finantzario, baldin eta hori beharrezkoa bada dauden itxaropenetara hobekien egokitzen den kudeaketa finantzarioa gauzatzeko.

**2. ATALA. ZOR PUBLIKOA****100. artikulua. Jaulkipena**

1. Zor publikoaren jaulkipena Arabako Foru Aldundiak erabakiko du, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak proposatuta.

2. Jaulkipen akordioak eragiketaren gehieneko zenbatekoak eta eragiketa gauzatzeko azken eguna zehaztuko ditu.

3. Ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailari dagokio aurreko apartatuan adierazitako akordioan aipatu ez diren jaulkipenaren gainerako ezaugarriak zehaztea.

**101. artikulua. Instrumentazioa eta kudeaketa**

1. Zor publikoa kontuko idatzoharren edo hori formalki aitortzen duen beste edozein bitartekoren bidez adieraz daiteke.

2. Zor publikoaren kudeaketari buruzko eskumen guztiak ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailari dagozkio.

**102. artikulua. Eskualdatzeko araubidea**

Zor publikoa eskualdatzeko muga bakarrak sortzeko arauetatik eta negoziatzen diren merkatuen arau erregulatzaileretatik eratorritakoak izango dira.

**103. artikulua. Iraungipena**

1. Zor publikoaren interesak ordaintzeko betebeharra interesak mugaeguneratu eta dirua itzultzeko deia egiten den eguna iritsi eta bost urtera iraungiko da, bai eta itzultzeko deitutako kapitalak itzultzekoa ere, hurrenez hurren. Nahitaezko bihurketa edo truke deien kasuan, kapitalak itzultzeko betebeharra hamar urtera iraungiko da, eragiketarako ezarritako epearen azken egunetik zenbatzen hasita.

2. Zor publikotik eratorritako ordainketa betebeharrak hirugarren pertsona baten bidez egiten badira, eta pertsona horrek ezin badizkio funtsak edukitzeleari edo titularrari eskualdatu, zor horren zenbatekoa Foru Diruzaintzan gordailutuko da, eskubidea egiaztatzen duenaren eskura, betiere artikulua honen 1. apartatuan xedatutakoa betez.

3. Iraungipenen etena Kode Zibilaren xedapenen arabera egiaztatuko da.

4. Zor publikoaren kapitalak hogeit hamar urtera iraungiko dira, interesik jaso gabe eta titularrak Arabako Foru Aldundiaren aurrean inolako egintzarik egin gabe, baldin eta horrek bere eskubidea gauzatea badakar.

V. KAPITULUA. FORU SEKTORE PUBLIKO ENPRESARIAL  
ETA FUNDAZIONALAREN ZORPETZEA**104. artikulua. Zorpetzea**

1. Foru sektore publiko enpresarial eta fundazionala osatzen duten erakundeek epe luzeko zorpetze eragiketak egin ahal izango dituzte, haien ezaugarriak eta formalizazio araubidea edozein direla ere, betiere kapital eragiketetarako badira eta bakoitzaren aurrekontuetan jasota badaude.

2. Gainera, foru sektore publiko enpresarial eta fundazionala osatzen duten erakundeek aukera hauek izango dituzte:

a) Lehendik dauden eragiketen ordezte osoa edo partziala onartzea.

b) Diruzaintzako une bateko zailtasunei aurre egiteko beharrezkotzat jotzen diren epe laburreko zorpetze eragiketak formalizatzea, horiek dokumentatzeko edozein modutan.

c) Interes tasen arriskua estaltzeko eragiketak egitea, formalizatutako zorpetze eragiketei dagokienez.

3. Aurrekontua betearazteko foru arauak epe luzeko zorpetzearen gehieneko muga onartuko du ekitaldi bakoitzerako.

4. Artikulu honetan aipatzen diren zorpetze eragiketa eta arrisku estaldurako eragiketa guztiek Arabako Foru Aldundiko ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloko sail eskudunaren aurretiazko baimena beharko dute.

## VI. KAPITULUA. ABALAK ETA BESTE BERME BATZUK EMATEA

**105. artikulua. Arabako Foru Aldundiak abalak eta bestelako bermeak ematea**

1. Arabako Foru Aldundiak epe luzerako hitzartutako kreditu eragiketetatik eratorritako betebeharrak bermatu ahal izango ditu, dagokion abala edo beste berme batzuk emanez.

2. Foru sektore publikoko gainerako erakundeek abalak edo bestelako bermeak eman ahal izango dituzte, ekitaldi bakoitzeko aurrekontua betearazteko foru arauan hala aurreikusten denean.

Apartatu honetan aipatzen diren abalak edo bestelako bermeak emateko, Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak alde aurreko baimena beharko da.

3. Arabako Foru Aldundiak eta foru sektore publikoko gainerako erakundeek ekitaldi bakoitzean eman beharreko bermeen gehieneko zenbatekoak ezin izango du gainditu aurrekontua betearazteko foru arauan ezarritako muga. Ondorio horietarako, formalizatzen den unean bermatutako betebeharraren printzipaltzat hartuko da soilik.

4. Kreditu eragiketak birfinantzatzeko edo ordezteko ematen diren bermeak ez zaizkio aipatutako mugari egotziko, baldin eta aurretik zenbateko berarekin emandako bermeak ezereztea badakarte.

5. Abalek eta gainerako bermeek printzipalaren eta interesen ordainketa baino ez dute bermatuko.

**106. artikulua. Erakunde onuradunak**

1. Bermeak foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen eta Arabako Lurralde Historikoko udalen alde emango dira.

2. Era berean, Arabako Foru Aldundiak zuzenean partaidetutako sozietateek formalizatutako zorpetze eragiketak abalatu ahal izango dira.

**107. artikulua. Formalizatzeko eskumena duen organoa**

1. Ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailari dagokio abalak eta beste berme batzuk baimentzea eta formalizatzea, bai eta horien baldintzak zehaztea ere, finantza merkatuetan ohikoak diren klausulen antzekoak ezarriz, eta bermearen onuradun den pertsonak edo erakundeak behar besteko bermeak eman ditzan eskatzea.

2. Abalak subsidiariotzat joko dira, ematerakoan berariaz besterik xedatu ezean.

**108. artikulua. Komisioaren sortzapena**

Arabako Foru Aldundiak emandako abalek, hala badagokio, zehaztutako komisioa sortuko dute haren alde.

**109. artikulua. Ez ordaintzearen ondorioak**

1. Arabako Foru Aldundiak, abala ematea proposatu duen sailaren aurrekontu kredituen kargura, ordainketa betebeharren erantzukizuna izango du pertsona edo erakunde zordun nagusiak betebeharrak horiek betetzen ez dituenean.

2. Kode Zibilaren 1830. artikulua ezartzen duen eskusio onurari uko egitea Arabako Foru Aldundiak erabakiko du, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak proposatuta, baldin eta bermeen onuradunak foru sektore publikoko erakundeak badira.

**IV. TITULUA. KONTABILITATEA****I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK****110. artikulua. Printzipio orokorrak**

1. Foru sektore publikoa osatzen duten erakundeek kapitulu honetan ezarritakoaren arabera dagozkien kontabilitate printzipioak aplikatu beharko dituzte, bai beren jardueraren mota guztietako eragiketarako, kostuak eta emaitzak islatzeko, bai garrantzi ekonomikoa duten datuak eta informazioa emateko.

2. Foru sektore publikoaren kontabilitatea ekonomia, finantza eta aurrekontu informazioaren sistema bat da, eta haren helburua egoeren eta txostenen bidez, sistema osatzen duten erakunde bakoitzaren ondarearen, finantza-egoeraren, emaitzen eta aurrekontuaren gauzatzearen irudi fidela erakustea da.

3. Indarrean dagoen araudiaren arabera, foru sektore publikoa osatzen duten erakundeek Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eman beharko diote beren eragiketen berri, edozein izanik ere eragiketara horien izaera.

**111. artikulua. Foru sektore publikoaren kontabilitatearen xedeak**

Foru sektore publikoaren kontabilitateak xede hauek betetzea ahalbidetu behar du:

1. Aurrekontuen gauzatzea erakustea, aurrekontuen emaitzak agerian jarritz, eta Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako helburuen jarraipena egiteko informazioa ematea.

2. Ondarearen osaera eta egoera eta aldaketak agerian jartzea, eta emaitzak ekonomiaren eta ondarearen ikuspegitik zehaztea.

3. Informazio ekonomiko eta finantzario erabilgarria ematea:

a) Zerbitzu publikoen kostuak zehazteko.

b) Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta gainerako kontrol organoei eman edo igorri beharreko era guztietako kontuak, egoerak eta dokumentuak egitea.

c) Sektore publikoaren kontu ekonomikoak egitea.

- d) Ekonomia eta finantza jarduera kontrolatzea.
  - e) Erakunde publikoen jardueraren ondorio ekonomiko eta finantzarioen azterketa.
  - f) Erabakiak hartzea.
4. Informazio ekonomiko eta finantzario erabilgarria ematea kontabilitate informazioaren beste hartzaile batzuentzat.

#### **112. artikulua. Kontabilitateko printzipioak eta arauak aplikatzea**

1. Foru sektore publiko administratiboa osatzen duten erakundeek Foru Kontabilitate Publiko Plan Orokorrean eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritako printzipioak eta arauak aplikatu beharko dituzte.
2. Foru sektore publiko enpresariala osatzen duten erakundeek Merkataritza Kodean eta enpresaren Kontabilitate Plan Orokorrean jasotako kontabilitate printzipioak eta arauak aplikatu beharko dituzte, bai eta haien egokitzapenetan eta horiek garatzen dituzten xedapenetan jasotakoak ere.
3. Foru sektore publiko fundazionala osatzen duten erakundeek Kontabilitate Plan Orokorrean irabazi asmorik gabeko erakundeentzako egokitzapenean eta hura garatzen duten xedapenetan jasotako kontabilitate printzipioak eta arauak aplikatu beharko dituzte.

## II. KAPITULUA. KONTABILITATE INFORMAZIOA

### *1. ATALA. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRA*

#### **113. artikulua. Kontuak formulatzea**

Foru sektore publikoa osatzen duten erakundeek ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailari bidaliko dizkiote kontuak, Arabako Foru Aldundiak ezarritako epean, sail horretako titularrak proposatuta.

#### **114. artikulua. Kontu orokorraren edukia**

1. Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen kontuen bidez osatuko da.
2. Kontu orokorraren edukia, egitura eta arauak Arabako Foru Aldundiak zehaztuko ditu, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailaren titularrak proposatuta.  
Nolanahi ere, gutxienez, honako hauei buruzko informazioa emango du:
  - a) Aurrekontuak betearaztea eta likidatzea.
  - b) Ekitaldiko ekonomia eta ondare emaitzak.
  - c) Foru sektore publikoaren ekonomia, finantza eta ondare egoera.
  - d) Aurrekontuen, ekonomiaren, finantzen eta ondarearen egoera hobeto ulertzeko behar diren memoriak.

#### **115. artikulua. Kontu orokorra onartzea**

1. Foru Gobernu Kontseiluak, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak proposatuta, Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra onartuko du behin-behinean, hura kontu orokorra onesteko foru arauaren proiektuaren espedientearen barruan formalki kontuan hartzea eragotzi gabe. Kontu orokorra Batzar Nagusietara bidaliko da bere araudian xedatutakoaren arabera, urte bakoitzeko uztailaren 1a baino lehen, foru sektore publiko enpresarial eta fundazionalako erakundeei aplikatu dakiekeen araudian ezarritako epeak kontuan hartuta.

2. Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra behin-behinean onartzeko erabakia Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko da, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

3. Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra, Batzar Nagusiek behin betiko onartu ondoren, ALHAOn argitaratuko da, laburbilduta.

## 2. ATALA. ALDIZKAKO INFORMAZIOA

### 116. artikulua. Batzar Nagusiei eman beharreko kontabilitate informazioa

1. Batzar Nagusiek egoki iritzitako informazioa eskatzeko duten ahalmenari kalterik egin gabe, foru sektore publikoko erakundeek aurrekontuaren gauzatzearen eta euren egoera ekonomikoko eta finantzarioaren berri emango dute.

2. Hilero, Arabako Foru Aldundiak honako hauek emango dizkie Batzar Nagusiei:

a) Aurrekontu arruntaren gauzatze egoera.

b) Behin-behineko balantzea eta galera eta irabazien kontua.

c) Aurrekontu aldaketaren egoera.

d) Onartutako gastu konpromisoen proiektuak, uneko ekitaldiari egotzi beharreko gastuaren zatia, etorkizuneko ekitaldiei dagokiena eta urtekoen kopurua adierazita.

e) Gastuen eta sarreraren hondarren gauzatze egoeraren laburpena.

f) Egindako finantza eta zorpetze eragiketen egoera.

g) Foru Gobernu Kontseiluak erabakitako krediturik ez izatea.

3. Aurrekontua luzatu bada, luzatutako ekitaldiko urtarrilean, Arabako Foru Aldundiak luzatutako kredituen eta luzatutako ekitaldirako sarreraren aurreikuspenaren xehetasunak emango ditu, hori guztia aurrekontu kodearen mailan, bai eta bi kontzeptuen artean dagoen finantzaketa aldea ere.

4. Aurrekontuko ekitaldi bakoitzaren lehen hiruhilekoaren barruan, Arabako Foru Aldundiak bere finantza plana bidaliko die Batzar Nagusiei, hartutako betebeharrak guztiak eta uneko proiektuen garapenak finantza publikoetan sortuko dituen aurreikuspenak adierazita.

5. Aurreko apartatuetan eta aplikatu beharreko beste edozein arauditan adierazitako alderdiez gain, Arabako Foru Aldundiak hilero bidaliko ditu Batzar Nagusietara foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen aurrekontuen gauzatze egoerak, eta hiru hilean behin, berriz, merkataritzako foru sozietateei, foru erakunde publiko enpresariei eta foru fundazioei dagozkien finantza egoerak.

6. Era berean, Batzar Nagusietara bidaliko da zerga itunduengatik diru-bilketari buruzko informazioa, baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruzko urriaren 7ko 4/2021 Legearen 32. 1. i) artikulua edo ordeztzen duen araudiaren arabera Eusko Jaurlaritzari bidalitako informazioaren epe berberetan eta eduki berarekin.

7. Sei hilean behin, Batzar Nagusietara bidaliko da inbertsioarekin, kapital transferentzia eta dirulaguntzekin lotutako partiden gauzatze mailari buruzko informazioa, kuadrillen eta udalen araberrako lurralde banaketaren xehetasunekin batera.

## III. KAPITULUA. KONTABILITATEAREN ARLOKO ESKUMENAK

### 117. artikulua. Foru Gobernu Kontseiluaren eskumenak

Foru Gobernu Kontseiluari dagokio, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak proposatuta:

a) Foru Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra onartzea.

b) Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrari buruzko Foru Arauaren Proiektua onartzea eta Batzar Nagusiei aurkeztea, behin betiko onar dezaten.

c) Erregelamenduak egiteko ahala erabiltzea kontabilitate publikoari buruzko egitura, justifikazioa, izapideak eta kontu ematea direla eta.

#### **118. artikulua. Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloko eskumenak dituen sailaren eskumenak**

1. Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloko eskumena duen sailari, kontabilitate publikoaren zuzendaritza zentroa den aldetik, honako eskumen hauek dagozkio:

a) Foru Gobernu Kontseiluari proposatzea Foru Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onartzea edo aldatzea.

b) Foru Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorraren egokitzapenak eta garatzeko araudia onartzea.

c) Erregelamenduaren garapena proposatzea, kontabilitate publikoari buruzko egitura, justifikazioa, izapideak eta kontu ematea direla eta.

d) Kontabilitatea izapidetzeko prozedurak onartzea eta datuen erregistroari eta kontabilitate informazioaren aurkezpenari aplikatu beharreko irizpide orokorrak zehaztea.

e) Kontabilitate printzipio publikoak aplikatu behar dituzten foru sektore publikoko erakundeen kontabilitate analitikoaren oinarriko printzipioak ezartzea.

2. Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloko eskumena duen sailari, kontabilitate publikoa kudeatzeko zentroa den aldetik, honako eskumen hauek dagozkio:

a) Arabako Foru Aldundiaren kontabilitatea kudeatzea.

b) Foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen kontabilitate informazioa zentralizatzea.

c) Batzar Nagusiei eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eman beharreko kontuak aurkezteko eskatzea.

d) Arabako Lurralde Historikoaren kontu orokorra egitea.

e) Kontabilitate publikoaren, enpresarialaren edo fundazionalaren araubideari lotutako foru sektore publikoko sail eta erakunde guztietan kontabilitate eginkizunaren antolaketa eta erabilera zaintzea eta bultzatzea.

f) Batzar Nagusiei eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eman behar zaizkien foru sektore publikoko erakundeen kontuei buruzko txosten eta memoria guztiak biltzea, bai eta ekonomia eta kontabilitate egoerak ere.

g) Foru sektore publikoaren kontu ekonomikoak egiteko informazioa ematea.

## **V. TITULUA. KONTROL EKONOMIKOA**

### **I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **119. artikulua. Definizioa eta motak**

1. Hau da kontrol ekonomikoa: Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren ekonomia eta finantza jardueraren gainean egiten dena, Foru Ogasunaren berezko gaien gainean egiten dena, eta, horietatik eratorrita edo horiek adierazita, foru ogasuna osatzen duten eskubide eta betebeharrak guztiekin lotura zuzena edo zeharkakoa duten banakako eragiketen gainean egiten dena.

2. Kontrol ekonomikoa barnekoa edo kanpokoia izan daiteke. Barneko kontrol ekonomikoak kontabilitate kontrola eta kontu-hartzaitzako kontrola dira. Kanpoko kontrola Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren kontrola da.

#### **120. artikulua. Aplikazio eremua**

Titulu honetako xedapenak Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren barruan dauden erakunde guztiei aplikatuko zaizkie, bai eta pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatu guztiei ere, baldin eta aurrekontu horien kargura emandako dirulaguntzak edo funts publikoak jasotzen edo erabiltzen badituzte, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

#### **121. artikulua. Arauketa**

1. Kontabilitate eta kontu-hartzaitzako kontrolak foru arau honen eta bere erregelamendu edo garapeneko xedapenen arabera arautzen eta gauzatzen dira.

2. Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren kontrola bere araudi espezifikoaren arabera arautu eta gauzatzen da.

#### **122. artikulua. Barneko kontrol ekonomikoaren printzipioak**

Barneko kontrol ekonomikoak printzipio hauek izango ditu:

a) Unibertsaltasun printzipioa objektuan; horren arabera, foru sektore publikoak egiten duen jarduera ekonomiko eta finantzario guztiak kontrol ekonomikoa izan dezake.

b) Kontrolatzailearen bakartasunaren eta hierarkia organikoaren printzipioa; horren arabera, barneko kontrol ekonomikoa egiten duen organoa bakarra da Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publiko osorako, eta hierarkikoki Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailean kokatuta dago.

c) Independentzia funtzionalaren printzipioaren arabera, barneko kontrol ekonomikoa egiten duen organoak autonomia osoz jokatzen du kontrolatzen dituen organo eta erakundeekiko.

d) Beren jardunera mugatutako erantzukizun printzipioaren arabera, barneko kontrol ekonomikoa egiten duten subjektuak soilik izango dira erantzule dolo, erru edo zabarkeria larriarekin Arabako Lurralde Historikoko Foru Ogasunari kalteak eta galerak eragiten dizkioten egintza edo xedapenen bidegabekeriari edo legezketasunik ezari buruzko erantzukizuna salbatu ez dutenean, eta horiek eratzeko, jaulkitzeko eta gainbegiratzeko prozesuan aldez aurretik parte hartu dutenean.

e) Lankidetzaren organikoaren printzipioaren arabera, eta aitortutako eskumenen barruan, barneko kontrol ekonomikoa egiten duen organoak lankidetzaren eta laguntza aktiboa emango dizkie kontrolatzen dituen organoei, organo horien eginkizunak eta eskumenak eraginkortasunez gauza ditzaten.

#### **123. artikulua. Eskumenak**

1. Foru arau honetan ezarritakoaren arabera, Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen saileko kontrol organoak beteko du barneko kontrol ekonomikoaren eginkizuna.

2. Barneko kontrol ekonomikoaren eginkizuna kontrola auditoretza prozeduren bidez gauzatzeari buruzkoa denean, kontrol organoak administrazioarekin berarekin zerikusirik ez duten baliabideak erabili ahal izango ditu, horretarako kontratatuta badaude.

3. Barneko kontrol ekonomikoko eginkizunak betetzean, organo eskudunak bere eginkizuna betetzeko beharrezkoak diren espedienteak, datuak, txostenak, aholkularitza teknikoak, aurrekariak, dokumentuak edo argibideak eskatu ahal izango dizkie egoki diren erakunde guztiei.



## II. KAPITULUA. KONTABILITATE KONTROLA

**124. artikulua. Kontabilitate kontrolaren definizioa eta eremu subjektiboa**

1. Kontabilitate kontrola Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren jarduera ekonomikoaren jarraipena egitean datza, eragiketa guztiek kontabilitatean isla egokia izango dutela ziurtatzeko eta bermatzeko.

2. Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko erakunde guztiak daude kontabilitate kontrolaren mende.

3. Erakunde horiek nahitaez eman behar dituzte beren egintzen eta eduki ekonomikoko eragiketen kontuak, foru arau honetan ezarritakoaren arabera.

**125. artikulua. Kontabilitate kontrolaren irismena**

1. Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloko eskumena duen saila da kontabilitate kontrola egiteko eskumena duen organoa, eta, arlo horretan duen eskumena gauzatzuz, honako hauek egin ahal izango ditu:

a) Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten erakundeek kontabilitate jarduera ikuskatzea, eta, eremu horretan bertan, kanpoko kontrol organoari edo beste organo batzuei eman beharreko kontuak eta gainerako dokumentuak aurkeztea eta aztertzea, eta, hala badagokio, beharrezkotzat jotzen dituen oharrek egitea.

b) Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten erakundeek bidali beharko dioten kontabilitate informazioa zehaztea, bai eta informazio horren aldizkakotasuna eta komunikazio prozedura ere, foru sektore publikoaren ekonomia eta finantzei buruzko informazioa zentralizatzeko eta prestatzeko eginkizunak bete ahal izateko.

2. Kontabilitate kontrolari datzekio Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten erakundeek kontabilitate informazio mota oro eta eragiten dieten ekonomia eta kontabilitateari buruzko txostenak biltzeko aukera, eta kontabilitate informazioa zentralizatzeko, hura kontsolidatzeko eta gehitzeko.

## III. KAPITULUA. KONTU-HARTZAILTZAKO KONTROLA

## 1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

**126. artikulua. Definizioa eta modalitateak**

1. Kontu-hartzailtzako kontrola Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren jarduera ekonomikoaren gainean kapitulu honetan jasotako modalitateen arabera egiten den barneko kontrola da.

2. Kontu-hartzailtzako kontrola honako kontrol modalitate hauek osatzen dute:

a) Ekonomia, finantza eta kudeaketa kontrola.

b) Ekonomia eta zerga kontrola.

c) Araugintzako kontrol ekonomikoa.

**127. artikulua. Kontu-hartzailtzako kontrolaren xedeak**

Kontu-hartzailtzako kontrola honako xede hauen zerbitzura egongo da:

1. Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren jarduera ekonomikoa ekonomia, finantza, aurrekontu, ogasun eta kontabilitateari buruzko eta aplikagarri zaizkion gainerako xedapenetara egokitzen dela bermatzea, ezarritako baldintzetan.

2. Eragiketa ekonomikoen kudeaketan eta administrazio antolaketan ekonomia, eraginkortasuna eta efizientzia sustatzea.

3. Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren jarduera ekonomikoari buruzko beharrezko informazioa ematea dagokien organoei, erabaki egokiak hartzea errazteko.

4. Politika ekonomiko publikoak gauzatzen laguntzea.

5. Finantza legezkotasuna zaintzea, Foru Ogasunaren eskubideen osotasuna ziurtatzeko.

## 2. ATALA. EKONOMIA, FINANTZA ETA KUDEAKETA KONTROLA

### 128. artikulua. Xedeak

Ekonomia, finantza eta kudeaketa kontrolak xede hauek izango ditu:

1. Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa haren jarduera ekonomiko eta finantzarioa arautzen duten xedapen eta jarraibideei eta erregularitasun, legezkotasun, eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia printzipioei egokitzen zaiela egiaztatzea.

2. Arabako foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen kontabilitatea eta ekonomia eta finantzei buruzko informazioa haien finantza, ondare eta aurrekontu egoeraren irudi zintzoa direla, eta aplikatu daitezkeen xedapen eta printzipioetara egokitzen direla egiaztatzea, ekonomia, finantza eta kudeaketa kontrolei buruzko txostenetan kudeaketa hobetzeko beharrezko gomendioak sartuta, hala badagokio.

3. Dirulaguntzen finantza kontrola egitea onuradunei eta, hala badagokio, erakunde laguntzaileei dagokienez, Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren kargura emandako Foru Administrazioaren eta hari lotutako edo haren mendeko erakunde eta entitateen dirulaguntzak direla eta.

### 129. artikulua. Gauzatzeko modua

1. Ekonomia, finantza eta kudeaketa kontrola jarduera ekonomikoaren jarraipena egitean datza, auditoretza tekniken bidez. Auditoria horiek kudeaketako auditoriak, finantzakoak, aurrekontua eta legezkotasuna betetzekoak, prozedurak berrikustekoak eta kontrolpeko erakunde eta pertsonen barneko kontrolekoak izan daitezke.

2. Ekonomia, finantza eta kudeaketa kontrola kontrolpeko subjektuarentzat, haren izaeraren arabera, aldi baterako edo ekonomikoki garrantzitsua den ziklo bat amaitu ondoren egingo da.

Hala ere, hala zehazten denean, ekonomia, finantza eta kudeaketa kontrola etengabe egin ahal izango da, baita Arabako Foru Aldundiko administrazio unitateetan edo Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko erakundeetako organoetan ere.

3. Dirulaguntzen arloan, aurreko artikuluko 3. zenbakian aipatzen den ekonomia, finantza eta kudeaketa kontrola dirulaguntzak eta laguntzak emateko xedapen arautzaileek ezarritako unean egingo da. Halakorik ezean, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak zehaztuko du noiz.

### 130. artikulua. Urteko Auditoretza Plana

1. Aurreikusita dauden ekonomia, finantza eta kudeaketa kontroleko jarduketak Urteko Auditoretza Planean sartuko dira. Plan hori ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak onartuko du, aplikatu beharreko ekitaldia hasi aurretik. Plan horren berri emango zaio Foru Gobernu Kontseiluari, horren berri izan dezan.

2. Urteko Auditoretza Planak kontrol organoan jatorria duten ekonomia, finantza eta kudeaketa kontroleko ekimenak jasoko ditu, bai eta kontrolatuak izan daitezkeen Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten erakundeetan jatorria dutenak ere.

**131. artikulua. Finantza kontroleko txostenak**

1. Ekonomia, finantza eta kudeaketa kontrola finantza kontroleko txostenetan gauzatuko da. Txosten horiek kontrolpeko erakunde, organo edo pertsonaren kudeaketa ekonomiko-finantzario osoari buruzkoak izan daitezke, edo kontrolaren zati bati buruzkoak, aztertutako aldian.

2. Ahaleginak ez bikoizteko edo gastuak murrizteko, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak, finantza kontroleko txostena egiteko, beste kontrol organo batzuek edo kanpoko auditoreek egindako txostenak erabili eta, hala badagokio, bere egin ahal izango ditu, dagokion iturria aipatuz.

3. Txostenak kontrolpeko erakunde, organo edo pertsoneri igorriko zaizkie, bai eta kontrolpeko erakundea edo organoa atxikita dagoen Arabako Foru Aldundiko sailletako titularrei eta, hala badagokio, haien xede diren dirulaguntzak ematen dituzten Arabako Foru Aldundiko sailletako titularrei ere.

4. Txostena egin aurretik, espedientea kontrolatutako organoari edo erakundeari jakinaraziko zaio, eta entzunaldi epe bat emango zaio; epe horretan, bere eskubidearen alde egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu.

Kontrolpeko pertsonaren alegazioak, atzera botatzen badira, berariaz jasoko dira txostenean, bai eta alegazio horiek ezesteko arrazoiak ere.

**132. artikulua. Finantza kontroleko aktak**

Ekonomia, finantza eta kudeaketa kontrola egitean Arabako Foru Ogasunari kalteak eta galerak eragin dizkioten edo eragin diezazkioketen irregulartasunak hautematen badira, irregulartasun horiek finantza kontroleko txostenetan ez ezik, finantza kontroleko aktetan ere jakinaraziko dira, eta organo eskudunei helaraziko zaizkie, erantzukizunak -diziplinakoak- eta kalteordainekoak- eskatzeko jarduketak has ditzaten, hala badagokio, eta, betiere, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen saileko titularrari jakinaraziko zaizkio, haien berri izan dezan.

**3. ATALA. EKONOMIA ETA ZERGA KONTROLA****133. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua**

1. Ekonomia eta zerga kontrola Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publiko administratiboko erakundeen jarduera ekonomikoa fiskalizatzean datza, aplikagarri zaizkien xedapenak betetzen direla bermatzeko.

2. Foru arau honen ondorioetarako, jarduera ekonomikoa dira eduki ekonomikoko eskubiak edo betebeharrak aitortzea eta likidatzea dakarten egintza edo xedapen administratiboak, horien ondoriozko sarrerak eta ordainketak, eta funts eta balio publikoen bilketa, inbertsioa eta aplikazioa.

3. Era berean, xedapen aplikagarriak dira foru arau honen xedea osatzen duten gaiei dagokien finantza, ekonomia, aurrekontu, ondare, kontabilitate edo ekonomia legezketasunaren multzoa osatzen duten arauak eta jarraibideak.

4. Foru erakunde autonomoetan eta foru partzuergoetan, ekonomia eta zerga kontrolaren orde, ekonomia, finantza eta kudeaketa kontrola ezarri ahal izango da.

**134. artikulua. Irismena eta hedadura**

1. Ekonomia eta zerga kontrolak hauek bilduko ditu:

1.1. Aurrez, honako hauek kontrolatzea:

a) Eduki ekonomiko zuzena edo zeharkakoa duten ebazpen proposamenak.

b) Aurrekontu aldaketak, ondare eragiketak eta bermeak edo abalak emateko eragiketak, Foru Diruzaintzaren kargura.

c) Kontratazio prozedurak esleitzeko proposamenak, kontratazio mahaietan kontrol organoa egonez.

d) Eduki ekonomikoko eskubideak edo betebeharrak edo funtsen zein balioen mugimenduak ekar ditzakeen egintza, agiri edo espediente oro.

1.2. Dagozkien obrak, hornidurak, eskuraketak eta zerbitzuak fisikoki eta selektiboki egiaztatzea.

### **135. artikulua. Gauzatzeko modua**

1. Sarrerren aurretiazko kontu hartzearen orde, kontabilitatean haien arrazoia hartzeari daxe-kiona egingo da, eta geroko egiaztatze jarduerak laginketa edo auditoretza teknikak erabiliz ezarriko dira.

2. Betebarren edo gastuen aurretiazko kontu hartzea honako alderdi hauek egiaztatuz egingo da:

a) Hartu nahi den gastuaren edo betebeharraren izaerarako aurrekontu kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Urte anitzeko gastuak hartzen direnean, foru arau honen 59. artikuluan agindutakoa ere betetzea.

b) Betebeharrak edo gastuak sortzen dituen organoaren eskumena, eta hartzekodunaren eskubidea aski egiaztatzea.

c) Egintza, dokumentu edo espedienteen izaera kontuan hartuta, erregelamendu bidez zehazten diren beste alderdi gehigarri batzuk.

3. Funtsezko betekizunak edo izapideak bete ezean, edo foru sektore publikoa edo hirugarren bat ekonomikoki kaltetu badaiteke, azterketak zehatza izan beharko du, zehaztu gabeko zenbatekoa duten gastuetan bezala.

4. Kapitulu honetako 2. atalarekin bat etorritik, gastuak gauzatu ondoren, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak alde aurretik aztertu ez diren legezko alderdiak egiaztatuko ditu, legezotasunaren betetze maila egiaztatzeko.

### **136. artikulua. Fiskalizatze txostenak**

1. Ekonomia eta zerga kontrola fiskalizatze txostenetan gauzatuko da, eta txosten horiek erabakigarriak izango dira nahitaezkoa den prozedurak ebazteko.

2. Aldeko txostenek ez dute motibaziorik beharko, baina espedientean idatziz jaso beharko dira.

3. Kontrako txostenek baimen espediente baten izapidetzea edo gastuen xedapena, betebarren ezagutza edo ordainketen agindua etengo dute kasu hauetan bakarrik:

a) Fiskalizatze txostenaren oinarria kreditu nahikorik ez izatea edo proposatutakoa egokia ez izatea denean.

b) Egintza, egitatea edo eragiketa horretarako eskumenik ez duen organo batek proposatzen duenean.

c) Kontrako txostenak obren, horniduren, erosketen edo zerbitzuen egiaztapen materialetatik datozenean.

d) Espedienteetan funtsezko betekizunak edo izapideak egiten ez direnean edo administrazio izapideekin jarraitzeak Arabako Foru Ogasunari edo hirugarren bati kalte ekonomikoak eragin diezazkiokeela uste denean.

e) Betebeharrak aitortu izanaren frogagirietan irregulartasun larriak antzematen direnean edo dagokion eskubidea behar bezala egiaztatzen ez denean.

4. Aldeko txostena eman ahal izango da, fiskalizatutako espedientean atzemandako akatsak gorabehera, baldin eta funtsezkoak ez diren betekizunei edo izapideei badagozkie. Kasu horretan, egintzak eraginkortasuna izateko akats horiek zuzendu beharko dira, eta horren berri emango zaio ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen saileko kontrol organoari.

5. Kontrako txostena jaso ondoren, kontrolpeko egintza eragiteko edo sortzeko eskumena duen organoak -edo hura proposatzeko eskumena duenak, onartzeko eskumena Foru Gobernu Kontseiluarena denean- konpondu ahal izango ditu konpondu beharreko akatsak, edo desadostasuna ogasun, finantza eta aurrekontu saileko titularrari helarazi, ebazpena eman dezan, eta hori nahitaezkoa izango da fiskalizazio txostena egin duen organoarentzat.

Desadostasunak irauten badu, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio behin betiko ebazpena hartzea.

#### 4. ATALA. ARAUGINTZAKO KONTROL EKONOMIKOA

##### 137. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

1. Araugintzako kontrol ekonomikoaren xedea Arabako Foru Aldundiak egiten dituen foru arauen aurreproiektuak eta eduki ekonomikoak duten xedapen orokorren proiektuak fiskalizatzea da

2. Kontrol horrek, ekonomiari eta antolamenduari dagokienez, Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko organo eta erakunde guztien sorrera eta ezabaketa fiskalizatuko ditu, bai eta organo eta erakunde horien aldaketak eta berregituraketak ere.

3. Nolanahi ere, kontrol horren xede izango da dirulaguntzen programak garatzeko eta deialdiak egiteko onartu nahi den araudia.

4. Kontrol horretatik salbuetsita daude tributuei eragiten dieten arau xedapenak eta Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorrak eta kontu orokorrak onesteko xedea dutenak.

##### 138. artikulua. Xedea eta edukia

1. Araugintzako kontrol ekonomikoaren xedea fiskalizatu beharreko xedapenen proiektuek bai aurrekontuetan, sarrera eta gastu publikoetan, bai aurrekontuz kanpo, duten eragin ekonomikoa ebaluatzea izango da, eta honako alderdi hauek hartuko ditu bere baitan:

a) Dagokion xedapenari aurrekontu estaldura emateko proposatutako kreditua edo finantzaketa badagoela eta egokia dela egiaztatzea.

b) Xedapenak Foru Diruzaintzan eta une bakoitzean indarrean dauden ondare, kontabilitate, kontratazio, tributu, zorpetze edo berme araubideetan duen eragina, bai eta foru arau honetan edo aplikatzekoa den ekitaldiko aurrekontua betearazteko foru arauetan jasotako gastu eta sarrera publikoen aurrekontu eta gauzatze araubidean ere.

c) Kontrolatu beharreko xedapenak ekonomia eta aurrekontu programen helburu eta ekin-tzetan duen eragina eta egokitzapena, hala badagokio.

d) Proposatutako xedapenaren finantza arazoikotasuna, kuantifikatzeko moduan.

e) Jarduera ekonomikoan eta Foru Ogasunari dagozkion gaietan duten eragina eta garrantzia dela eta garrantzitsuak diren beste alderdi batzuk.

2. Aurreko artikuluko 2. apartatuan aipatutako araugintzako kontrol ekonomikoak, aurreko paragrafoan aipatu eta aplikatzekoak izan daitezkeen alderdiez gain, zerbitzuen kostuaren eta errendimenduaren egoera, bilakaera eta aldaketa bildu eta haiei buruzko iritzi arrazoitua eman beharko du.

**139. artikulua. Gauzatzeko modua**

1. Araugintzako kontrol ekonomikoa nahitaezko kontrol txostena eginez gauzatuko da, eta kontrolaren xede den xedapen orokorra horretarako eskumena duen organoaren onespeneren mende jarri aurreko unean gauzatuko da.

Foru arauen aurreproiektuen edo foru dekretu arauemaileen proiektuen kasuan, araugintzako kontrol ekonomikoa Foru Gobernu Kontseiluak aztertu eta Batzar Nagusietara bidali aurreko unean gauzatuko da.

2. Araugintzako kontrol ekonomikoaren peko xedapenei kontrako txostena ematen bazaie aurreko artikuluko 1. apartatuko a) letraren arabera, edo uste bada xedapenak foru diruzaintzari edo ondareari kalte ekonomikoak eragin diezazkiokeela, espedientearen izapidetzea eten egingo da harik eta eragozpena konpondu arte.

3. Kontrako txostena jaso ondoren, kontrolpeko xedapen orokorra onartzeko eskumena duen organoak -edo hura proposatzeko eskumena duenak, onartzeko eskumena Foru Gobernu Kontseiluarena denean- konpondu ahal izango ditu konpondu beharreko akatsak, edo desadostasuna ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen saileko titularrari helarazi, ebazpena eman dezan, eta hori nahitaezkoa izango da kontrol txostena egin duen organoarentzat.

Desadostasunak irauten badu, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio behin betiko ebazpena hartzea.

4. Araugintzako kontrol ekonomikoari buruzko txostenak, bere horretan, kasuan kasu eta indarrean dauden lege eta erregelamendu xedapenen arabera ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen saileko edozein organok egin behar dituen txosten guztiak jasoko ditu, eta horien jatorriaren berri emango du.

**VI. TITULUA. ERANTZUKIZUNAK****140. artikulua. Printzipio orokorra**

Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko erakundeetako agintariak eta gainerako langileek, dolo edo erru larria tarteko, ebazpenak hartzen badituzte edo foru arau honetako xedapenak urratuz egintzak gauzatzen badituzte, Arabako Foru Aldundiari edo eragindako foru sektore publikoko erakundeari horien ondoriozko kalte-galeren ordaina eman beharko diete, legokiekeen erantzukizun penala edo diziplinazkoa gorabehera.

**141. artikulua. Ondare erantzukizuna eragin dezaketen gertakariak**

1. Hauek dira arau haustea, aurreko artikuluen ondorioetarako:

a) Funts publikoen administrazioan irismena izatea edo bidegabe erabiltzea.

b) Arabako Foru Ogasunaren baliabideak eta gainerako eskubideak administratzea, haien likidazioa, bilketa edo sarrera arautzen duten xedapenei lotu gabe.

c) Gastuak konprometitzea, betebeharrak likidatzea eta ordainketak agintzea horiek egiteko kreditu nahikorik gabe, edo foru arau honetan edo aplikatzekoa den ekitaldi bakoitzeko aurrekontua betearazteko foru arauan xedatutakoa urratuz.

d) Ordainketa itzulgarriak eragitea.

e) Foru arau honen 77. artikuluan aipatzen diren funtsen inbertsioa ez justifikatzea.

f) Foru arau hau hausten duen beste edozein egintza edo ebazpen, aurreko artikuluan ezarritako kasuak gertatzen direnean.

2. Aurreko apartatuan tipifikatutako arau hausteei kalteordaina emateko betebeharra sortuko dute, hala badagokio.

**142. artikulua. Erantzukizun motak**

1. Egintza edo ebazpena dolo bidez ematen denean, erantzukizuna foru arau hau hautsiz hartutako ebazpenetik ezagutzen diren kalte eta galera guztietara iritsiko da.

2. Erru larriaren kasuan, foru sektore publikoko erakundeetako agintariek eta gainerako langileek legez kanpoko egintza edo xedapenaren ondoriozko kalte-galeren erantzukizuna baino ez dute izango. Horretarako, administrazioak partikularren aurka egin beharko du aldez aurretik, bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko.

3. Ebazpenean edo egintzan parte hartu dutenen erantzukizuna mankomunatua izango da, dolo kasuetan izan ezik, kasu horretan solidarioa izango baita.

**143. artikulua. Erantzukizuna kontu-hartzaitzako eginkizunean**

Aurreko artikuluetan ezarritako baldintzetan, Arabako Foru Aldundiari edo eragindako foru sektore publikoko erakundeari kalteordaina emateko betebeharra izango dute, ebazpena ematen duten edo hura eragiten duen egintza gauzatzen dutenez gain, kontu-hartzaitzako eginkizuna betetzen dutenek, hura zabaltzen den alderdiei dagokienez, baldin eta dagokion espedientearen beren jarduna salbatu ez badute, egintzaren edo ebazpenaren desegokitasunari edo legez kontrakotasunari buruzko idatzizko oharraren bidez.

**144. artikulua. Organo eskuduna eta prozedura**

1. 142. artikuluko 1. apartatuan aurreikusitako arau hausteen kasuetan, erantzukizuna ustezko erantzuleari eskatuko zaio inbuitutako administrazio espedientearen.

2. Foru Gobernu Kontseiluari dagokio espedientearen hasteko erabakia hartzea, instrukzio-egilearen izendatzea eta espedientearen ebaztea.

3. Foru aldundiko abokatuak txostena egin ondoren espedientearen amaiera ematen dion ebazpenak, interesduneei entzunda izapidetutakoak, Arabako Foru Ogasunaren ondasun eta eskubideei eragindako kalte-galerei buruzko erabakia hartuko du, eta erantzuleei kalteordainak emateko betebeharra ezarriko die, zehaztutako zenbatekoan eta epean.

**145. artikulua. Egindako kalteen zenbatekoaren araubide juridikoa**

1. Erantzukizuneko espedienteetan aitortutako kalteak Arabako Foru Ogasunaren edo dagokion erakundearen izaera publikoko eskubidetzat hartuko dira. Eskubide horiek foru arau honen 24. artikuluko 1. apartatuan aipatzen den araubidea izango dute, eta, hala badagokio, premiamendu bidez kobratuko dira.

2. Arabako Foru Aldundiak edo, hala badagokio, dagokion erakundeak eskubidea du foru arau honen 19. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako intereserako, bere ondasun eta eskubideen irismen, bidegabeko erabilera, kalte eta galeren zenbatekoari dagokionez, kalteak sortzen diren egunetik aurrera. Zuzeneko zordunaren kaudimengabeziagatik ekintza erantzule subsidarioei eratoritzen zaienean, ordainketa eskatzen zaien egunetik aurrera kalkulatu da interesa.

Lehenengo xedapen gehigarria. Arabako Lurralde Historikoko Batzar Nagusiak

Foru arau hau ez zaie aplikatuko aurrekontu autonomia duten Arabako Lurralde Historikoko Batzar Nagusiei. Hala ere, Arabako Lurralde Historikoko aurrekontua betearazteko foru arauaren proiektua egiteko beharrezkoa den koordinazioa beteko da.

Batzar Nagusiek, beren eskubide eta betebeharren gainean, foru arau honetan Arabako Foru Aldundiari aitortzen zaizkion eskumen, ahalmen eta eskudantzia berberak izango dituzte.

Bigarren xedapen gehigarria. Foru sektore publikoko erakunderen bati atxikitako partzuergoak, bere erabakitzeko ahalmenaren mende ez daudenak

Arabako Foru Aldundiak kontrolatutako erakundetzat hartuko dira foru sektore publikoko erakunde bati atxikitako partzuergoak, baldin eta partzuergo horiek ez badaude haien erabaki ahalmenaren mende, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 120. artikulua 2. apartatuko a) letratik e) letrara bitartean aurreikusitako egoeretakoa bat ere gertatzen ez delako



Partzuergo horien aurrekontuak, informazio ondorioetarako, Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorrekin batera joango dira. Halaber, aurrekontu horien likidazioa Arabako Lurralde Historikoko Kontu Orokorrarekin batera joango da, informaziorako, Arabako Foru Aldundian ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak zehazten duen moduan.

Hirugarren xedapen gehigarria. Kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren funtzionamendu printzipioak foru sektore publiko enpresarial eta fundazionalako erakundeei aplikatzea

69. artikuluan aurreikusitako kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren funtzionamendu printzipioak foru sektore publiko enpresarial eta fundazionala osatzen duten erakundeei aplikatuko zaizkie.

Laugarren xedapen gehigarria. Foru partzuergoetan ordainketak materialki antolatzeko eskumena

Partzuergoetan, ordainketaren antolamendu materiala organo eskudunei dagokie, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

Xedapen indargabetzailea

Indargabeturik geratzen da 53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzkoa, bai eta foru arau honetan xedatutakoarekin bat ez datozen edo horren aurkakoak diren maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak ere.

Azken xedapenetako lehenengoa. Erregelamendu bidezko garapena

Arabako Foru Aldundiari ahalmena ematen zaio, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloetan eskumena duen sailak proposatuta, foru arau hau gauzatzeko eta garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea

Foru arau honek 2024ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Aurrekoa gorabehera, 2023ko irailaren 1ean jarriko da indarrean foru arau honen II. tituluko II. kapitulua.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 25a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**